KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA 2026 / Azaroa / 373. zenbakia

www.oñati.eus

JON MESTRE ARZUAGA

Piano-jotzaile gazteak kontzertua emango du azaroaren 22an, Santa Ana antzokian, Oñatiko Musikegunak jardunaldien baitan

ZERGA ORDENANTZA



Udal zerga eta tasek %4,43ko igoera orokorra izango dute 2027an

MUSIKA BANDA



Musika bandak denboraldiko lehen kontzertua eskainiko du azaroaren 15ean

OÑATI, ZINEMA-PLATO



Pelikula baten grabazioak Portu kale inguruko aparkalekuei eragingo die

373. zkia
2026ko azaroa

Film baten grabazioak Portu kale inguruko aparkaleku batzuei eragingo die azaroaren 10etik 24ra bitartean

Galartza etxean egingo dira filmaketak eta, tarteka, Bakardadeko Ama kalean trafiko mozketa laburrak ere egingo dira

Oñatiko erdigunea eta, zehazki, Galartzatarren etxea zinema-plato bihurtuko da datozen asteetan eta horrek eragina izango du inguruko aparkalekuetan batez ere. Beheko irudietan adierazten da zein aparkaleku hartuko dituen pelikulako lantaldeak, beraien kamioi eta bestelako azpiegiturak instalatzeko.

Pelikulako talde teknikoa **azaroaren 10ean** iritsiko da Oñatira, prestaketa lanekin hasteko, eta filmaketa lanak hilaren **18, 19 eta 20an** egingo dituzte. Hiru egun horietan nabarituko dugu, bereziki, grabazio lanen eragina. Tarteka trafiko mozketa batzuk ere egingo dituzte Bakardadeko Ama kalean, baina oso laburrak izango omen dira. Hilaren **23 eta 24an** egingo dituzte desmuntatze lanak.

Pelikulari dagokionez, esan dezakeguna da Leopoldo Alas 'Clarín'en klasiko baten egokitzapena dela, emakumeen ikuspuntu batetik berrinterpretatua. Mar Coll kataluniarra da zuzendaria, eta estatu mailako izen handiko zenbait aktorek parte hartzen dute. Netflixek ekoitzia da.



Galartzatarren etxeko atarian eta barruko gela ezberdinetan filmatuko dituzte pelikularako eszenak.











Garabiak Bakardeko Ama kalean

◄ Ondoko foto-muntaiak erakusten duen moduan, **Bakardadeko Ama** kaleko espaloi batean bi garabi ipiniko dituzte Galartzatarren etxea argiztatu eta kanpoaldeko irudiak grabatzeko. Portu kaleko plazatxoan ere jarri nahi dute beste garabi bat, baina azken hau udalaren baimenaren zain dago oraindik.

Filmazio taldeak hartuko dituen aparkalekuak

Ondoko irudietan ikus daitezke filmaketa taldeak bere azpiegiturentzat hartuko dituen aparkalekuak: **Portu Kale**ko zamalanetarako gunea (ez osorik), **Maiatzaren 1a plaza** ondoko aparkalekua, eta **Laboral Kutxa** aurrealdeko gunea. Bakardadeko Ama eta Portu kaleen artean dagoen **espaloi zirkularra** ere okupatuko dute ekipo elektrogenoa kokatzeko. Horiez gain, **Parrokiko atzealdeko** gune bat ere hartuko dute (Sana Ana antzokia ere erabiliko dutelako *catering* zerbitzurako, besteak beste). Aipatutakoez gain, tarteka, **San Anton** kaleko zamalanetarako gunea ere erabiliko dute, eta litekeena da Lope Agirre kalea ere erabili behar izatea ibilgailuren bat aparkatzeko, baina azken hau zehaztu barik dago oraindik.



Izena:.....

Helbidea:.....

Telefonoa:.....

•Eman izena abenduak 15a baino lehen. Ordurako zure balkoia apainduta egon behar da.
Izena emateko lekuak: MIZKE, KUTTUN, SILLERO

txanda

ONÑATI
dabilen herria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako
Foru Aldundia

Txanda Elkartea

Udal zerga eta tasek %4,43ko igoera izango dute 2027an

KPIaren araberako igoera aplikatzea onartu du udalbatzak, EH Bilduren aldeko eta EAJren aurkako botoz

Kiroldegiko abonoak %7ko igoera izango du. Hondakinen bilketa tasa berriz izoztu egingo da, eta jaitsi, komertzio eta industria txikien kasuan



Udalbatzako kideak urriaren 29ko osoko bilkuran

2025eko irailetik 2026kora KPIak EAEn izan duen %4,43ko igoera bera aplikatuko zaie udal zerga eta tasei 2027an, salbuespen batzuekin. Halaxe erabaki zuen udalbatzak urriaren 29ko osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko eta EAJren aurkako botoz. "Udal ordenantzetan KPIaren igoera jasotzea beharrezkoa iruditzen zaigu herritarren beharrei erantzuteko horren beharrezko ditugun zerbitzuak mantentzeko, horiei lotutako kostuak ere gora egingo dutela jakitun garen heinean", adieraz zuen Xabier Igartuak, Ogasun batzordeko buruak. Hurrengo urteetan ere kalitatezko zerbitzu publikoak ematen jarraitzea da udal gobernuaren asmoa. Orain arte moduan, egoera zaurgarrian dauden eta behar handiena duten herritarrei zein herriko hainbat elkarteri diru-laguntzak ematen jarraituko dugu, eta hau guztia egin ahal izateko arduraz jokatu eta ordenantzetan KPIaren pareko igoera aplikatzea erabaki dugu, beste urteetan egin dugun bezala".

Zerga eta tasetan %4,43ko igoera orokorra aplikatzeaz gain, udaleko batzorde ezberdinetatik jasotako proposamenak aintzat hartu eta ordenantzetako zenbait puntu osatu, hobetu eta eguneratu ditu udalbatzak. "Hainbat puntutan –EH Bilduk aurkezturiko 14 proposamenetatik 8tan– oposizioaren adostasuna jaso dugu eta pozten gara", azaldu zuen Igartuak.

Aldaketa horietako bat Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren arabera kalkulatzen diren taulak eguneratzea izan da, eta, hala, erreferentziazko kopurua 16.576 eurotik 17.094ra igotzea onartu du udalbatzak aho batez.

Aho batez onartu dute, baita ere, udal eskumeneko zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasetatik salbuestea indarkeria matxistaren biktimak. Orain arte, DSBE (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) jasotzen zutenak bakarrik zeuden salbuetsita.

Ondasun Higiezinen gaineko Zergari (OHZ) dagokionez, balio katastrala 220.000 eurotik 230.000eurora igotzea onartu da, eta hori izango da erreferentzia, adibidez, subjektu pasiboak

» XABIER IGARTUA / Ogasuna batzordeko burua

"Kalitatezko zerbitzu publikoak ematen eta behar handiena duten herritarrei eta herriko hainbat elkarteri diru-laguntzak ematen jarraitzeko, beharrekoa ikusten dugu arduraz jokatzea eta ordenantzak KPIaren arabera eguneratzea"

Bizigune programaren barnean alokatzen diren etxebizitzen titularrei aplikatzen zaien %50eko hobaria kalkulatzerakoan.

Bestalde, komunitate energetikoen bitartez autokontsumo partekatua duenei ere OHZ zergan hobaria –%50 ohiko etxebizitza bada, eta %25 bestelako erabilera duten lokalen kasuan– aplikatzea onartu da aho batez.

KIROLDEGIKO ABONOA %7 JASOKO DA

Datorren urtean, neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera kiroldegia ordu erdi lehenago (07:00etan) zabaltzea erabaki du Udalak, hainbat erabiltzaileren eskaera aztertu ostean, eta denbora gehigarri horren portzentaia tasari gehitzea erabaki du. Horrenbestez, %4,43ko igoera orokorrari %2,57koa gehituko zaio –guztira %7–.

Kiroldegiko fitness ekintzei dagokienez, 3. eta 4. ekintzen izen-ematean aplikatu izan den hobaria eta 'Sarrera librea' tasa kentzea erabaki du Udalak, hainbat fitness jardueretan itxaron zerrendak daudelako. Modu honetan, lehentasuna eman nahi zaio jarduera egiten ez duenari, asko egiten duenari baino.

Bestalde, kiroldegiko norbanakoen tasei dagokienez, adin tartea 14 urtetik 16ra aldatzea erabaki da, kontutan hartuta 16 urtetan dagoela gimnasioa erabiltzeko adin muga.



EAJren PROPOSAMENAK

Zergak izoztea eta alokairu eskuragarria sustatzeko pizgarriak proposatu ditu EAJk

EH bilduren gobernu taldeak proposatutako zerga eta tasen %4,43ko igoera orokorra baztertu, eta zerga ordenantzen bestelako eguneraketa bat proposatu du EAJren udal taldeak, "herritarren gaineko presio fiskala behar baino gehiago handitu ez dadin". Zehazki, udal zergak izoztea proposatu dute jeltzaleek, eta tasak KPIa eta zerbitzuen benetako kostua kontutan hartuta eguneratzea. "Ez du zentzurik zerga guztiak berdin igotzeak, aurretik beharrezkoa den aztertu gabe", adierazi du Xabier Mugarza EAJren udal taldeko bozeramaleak. "Udal kontu arduratsuen alde egiten dugu, baina baita Oñatiko familien errealitatea kontuan hartuko duen fiskalitatearen alde ere".

ETXEBIZITZA ESKAINTZA HANDITZEKO PIZGARRIAK

Etxebizitza da EAJren proposamenaren ardatz nagusietako bat. "Etxebizitzen eskaintza falta epe laburrean konponduko ez den arren, ezinbestekoa da hutsik dauden etxe-jabeek beren etxebizitzak prezio eskuragarrietan alokatzera animatuko dituzten neurriak bultzatzea", adierazi dute. Ildo horretan, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga erdira murriztea proposatu dute jeltzaleek, "partikularren artean alokatzen diren eta prezio-muga jakin batzuk betetzen dituzten etxebizitzentzat". Hobari hori eskuratzeko, alokairuak ezin izango luke hilean 675 eurotik gorakoa izan 90 metro koadro arteko etxebizitzetan, ezta metro koadroko 7,5 eurotik gorakoa ere, azalera handiagoko etxebizitzetan.

Ildo berean, etxebizitzak alokairu-merkatuan sartzera bideratutako obren gaineko zegan hobariak eskuratu ahal izateko baldintzak malgutzea proposatu du EAJk. Zehazki, etxebizitzak hutsik egon behar duen gutxieneko epea 9 hilabetera murriztea eta hileko gehieneko alokairua 675 eurotan ezartzea. "Udal gobernuaren proposamenak hobaria eskuratzeko alokairuaren gehieneko muga 550 eurotik 590 eurora igotzea aurreikusten du", azaldu dute jeltzaleek; "gure ustez aldaketa hori ez da nahikoa etxebizitza gehiago alokairu-merkatura erakartzeko.

GAZTEAK ETA JASANGARRITASUNA

Ordenantza fiskalak egungo gazteen errealitatera egokitu behar direla dio EAJk, "gero eta beranduago lortzen baitute independentzia ekonomikoa". Horregatik, kiroldegiko tarifa jakin batzuetan eta baita udal ikastaroetako matrikula eta tasetan ere egungo adin muga 22 urtetik 25era zabaltzea proposatzen dute jeltzaleek. "Ez du zentzurik gazte batek 22 urterekin abantaila jakin batzuk galtzeak, oraindik ikasten, lehen lanpostuaren bila edo emantzipatu nahian dabilenean", azaldu du Mugarzak.

Jasangarritasunaren arloan, jeltzaleek %50eko hobaria proposatu dute udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko tasa jakin batzuetan, ibilgailu elektrikoentzako karga-puntu homologatuak instalatzen dituzten garaje-plazentzat. "Helburua, azpiegitura horien ezarpena erraztea eta gutxiago kutsatzen duen mugikortasun eredu baterako trantsizioa sustatzea da", azaldu dute jeltzaleek. ▪

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari (EIOZ) dagokionez, etxeak alokairura bideratzeko asmoz egiten diren obrei aplikatzen zaien %90eko hobaria jaso ahal izateko, alokairu kontratuaren hileko gehienezko kopurua 550 eurotik 590ra igotzea erabaki du udal gobernuak, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak definitzen duen Oñatiko bataz besteko errenta kontutan hartuz. EAJk kopuru hori 675 eurotara igotzea nahi zuen.

Udal hilerriko tasei dagokienez, nitxoen titulartasun aldaketari dagokion tasetan prezio bakarra (76,25 €) ezartzea erabaki da, transmisio horietan ahaidetasunik dagoen ala ez kontutan hartu barik –orain arte 118,92 oradaindu behar zen ahaidetasunik ez zegoen kasuetan–, eta tasaren kontzeptua kostuarekin bakarrik lotuz.

HIRI-HONDAKINEN TASETAN JAITSIERA

Hondakinei buruzko 7/2022 legeak dio tasak eskuartean ditugun kostu errealen arabera finkatu behar direla. Tasa hauek urtetik urtera alda daitezke, besteak beste, bildutako hondakin kopuruaren, birziklatze tasaren eta hondakin birziklagarrien karakterizazioaren emaitzen arabera. Beraz, Debagoieneko Mankomunitateko txostenean jasotako azken datuen (2025) arabera hondakin bilketa zerbitzuaren kostuan jaitsiera egon da eta, horrenbestez, jaitsiera hori tasetan ere islatuko da.

Hala, zabor eta hiri hondakin solidoak biltzeagatiko tasa bere horretan mantenduko da etxebizitza, ostalaritza establezimendu, 15 enplegatutik gorako industria eta zerbitzuen kasuan. Eta, aldiz, jaitsi egingo da komertzioen eta 15 enplegatu arteko industrien kasuan. EAJk aurka bozkatu zuen, orain arte ezagutzen diren 2026ko datuen arabera zerbitzuaren kostuak gora egingo duela ikusten delakoan, baina gobernu taldeak erantzun zuen indarrean dagoen araubidearen arabera, tasak kostuen datu errealen arabera finkatu behar direla, eta ez estimazioetan oinarrituta.▪

Oñatiko EH Bilduko Mahai Politikoak Iñigo Ruiz hautatu du alkategai izateko



Oñatiko EH Bilduren Mahai Politikoak Iñigo Ruiz Barron (Oñati, 1984) proposatu du alkategai izateko. Halaxe eman zuen jakitera urriaren 31n egindako Herri Batzarrean. Arkitekturan lizentziatua da Ruiz eta egungo udal gobernuko kide da duela lau urtetik. Hirigintza batzordeko burua da eta, gainera, Pertsonak, Zerbitzuak, Landa Garapena eta Sozioekonomia batzordeetan ere ari da lanean. Bere prestakuntza, esperientzia eta udal kudeaketaren ezagutza kontutan hartuta, mahai politikoak uste du profil egokiena dela gaur gaurkoz Oñatik dituen erronkei erantzuteko, "beste hautagaitza batzuk aurkezteko eskubidea eta prozesuaren irekitasuna errespetatuz".

Mahai Politikoak nabarmendu du Ruiz buru-belarri ari dela lanean etxebizitzaren auzian, besteak beste. "Eskualdeko diagnostikoa eta etxebizitza plana garatzen lagundu du, baita Oñati gune tentsionatu izendatu ahal izateko ekintza plan propioa gauzatzen ere". Hirigintza arloan ere, "esangura handiko proiektuak" kudeatzen ari dela azpimarratu dute, "ikuspegi komunitarioa, berdintasuna eta inklusibitatea txertatuz espazio publikoetan". Ruizek udal kudeaketan duen esperientzia ere balioan jarri du Mahai Politikoak, "lagungarria gertatuko zaiolako herritarren beharrei, herritar zein eraileekin elkarlanean erantzuteko eta udal-politikak modu eraginkorrean garatzeko.

ALKATEAREN ESKER HITZAK



Iñigo Ruizen hautagaitza ezagutzera eman baino egun batzuk lehenago, Izaro Elorza egungo alkateak jakinarazi zuen sare sozialetan zabaldutako bideo baten bidez ez dela aurkeztuko hurrengo urteko udal hauteskundeetan. "EH Bilduren komunitatearen baitan badaukagu jendea prest lanerako eta ardurak hartzeko, eta uste dut badagokigula herriari beste aukera batzuk eskaintzea", adierazi zuen. Elorzak gaineratu du hasierako ilusio eta konpromiso berarekin lanean jarraituko duela agintaldia amaitu arte. "Baditugu proiektuak burutzeko eta beste hainbat eremutan ere urrats esanguratsuak emateko". Elorzak 2019an hartu zuen alkate makila eta ia zortzi urte hauetan bidelagun izan dituenei eman nahi izan die eskerrak bihotzez: udal gobernua osatu dutenei, uneoro alboan izan dituen etxekoei, EH Bilduko komunitateari, Udala osatzen dutenei, hamarnaka proiektutan parte hartu dutenei, eta, oro har, herritar orori.

'Olakoa' izango da aurrerantzean Olakua auzoaren izen ofiziala

EUSTAT euskal estatistiken erakundeak egindako eskaera onartu eta, dagokion azterketa tekniko-linguistikoak egin ostean, Udalak ondorioztatu du toponimoaren erro historiko eta jatorrizkoa *Olako-a* dela. *Olakua* forma 1960ko hamarkadan erabiltzen hasi eta hedatu zen administrazio-aldaera da, ahozkotasunetik idatzira pasa zena, baina Euskaltzaindiaren arauekin eta toponimia normalizatzeko irizpideekin bat ez datorrena. Ondorioz, udalbatzak aho batez onartu du *Olakua* auzoaren izena zuzendu eta *Olakoa* izen ofizial bihurtzea.

139 mila euro gehiago Foru Funtsetik

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakitera eman duenez, 2026ko zerga-bilketa aurreikuspenak %1,3an gainditu ahal izango dira, eta horrek esan nahi du lurraldeko udalak 9,1 milioi gehiago bideratu ahal izango direla udalen finantzaketara. Oñatiko udalak 139.688 euro gehiago jasoko lituzke, otsailean egingo den behin betiko likidazioaren menpe, beti ere.



Eva Gayubok zinegotzi kargua utzi du

EAJren udal taldeko Eva Gayubok zinegotzi kargua utzi zuen urriaren 29ko osoko bilkuran. Agintaldia azken txanpan sartuta dagoela ikusirik, udaletxeko ardurak utzi eta konpondu behar dituen osasun arazoetan zentratzeko unea dela azaldu zuen. "Niretako ardura eta erronka handia izan da hemen egotea; baita pribilegioa ere. Ez neukan eskarmenturik hasieran eta, horregatik eskerrak eman nahi dizkiet taldekide guztiei eta baita udal gobernuari ere, eman didaten laguntza eta babesagatik. Pertsonalki oso aberasgarria izan da urte hauetako esperientzia", adierazi zuen. Xabier Mugarzak Evaren lanerako gaitasuna azpimarratu duen, eta Izaro Elorza alkateak ere eskertu zion egindako lana.

LAN DEIALDIA

TOKIXAN egitasmoak Zubillagako ekoizpen guneko lantaldea osatzeko deialdia egin du

> Baratzegintza agroekologikoan formakuntza eta esperientzia izatea eskatzen da.

> Azaroaren 15era arteko epea dago izena emateko



Ekoizpen gunea Zubillagako Erguña Etxebarri baserrian daukan TOKIXAN proiektuak lantaldea osatzeko deialdia egin du, eta interesa dutenek azaroaren 15a baino lehen bidali behar dute curriculuma ***tokixan@tokixan.eus*** helbidera.

Kontratatuko diren pertsonek barazki eta fruten ekoizpenean egingo dute lan eta, gainera, Tokixan-en bidez ekoizpen berriak martxan jartzera animatuko diren nekazari berrien bidelagun ere izango dira.

BALDINTZAK. Baratzegintza agroekologikoan formakuntza eta esperientzia edukitzea eskatzen da, eta talde-lanean eta proiektu integraletan aritzeko gaitasuna. Esperientzia eta formazioa baloratuko da, formazio arautua nahiz elkarte ezberdinen bidez jasotakoa ere. Debagoienekoa izatea, harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna izatea eta B gidabaimena edukitzea ere baloratuko dira, besteak beste.

Izaera kooperatiboa izango duen proiektu honen parte izan nahi baduzu, edo informazio gehiago nahi izanez gero idatzi ***tokixan@tokixan.eus*** helbidera, edo bisitatu ***www.tokixan.eus*** webgunea.



Kontsumo Taldea osatzeko bilera irekia egingo da azaroaren 18an

TOKIXAN proiektuak Zubillagako Erguña Etxebarri baserriaren inguruan daukan ekoizpen gunearekin lotutako Kontsumo Taldea osatu nahi du, eta horren inguruko informazioa emateko bilera irekia egingo da azaroaren 18an, asteazkena, Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta kalea, 18), 18:00etan. Oñatiko ekoizpen agroekologiko bateko barazki fresko eta osasuntsuz osatutako saskiak jasotzeko interesatuta dauden herritar guztiak daude gonbidatuta bertara. Bilera horretan bertan adostuko da nola funtzionatuko duen kontsumo taldeak: saskien tamaina eta prezioak, maiztasuna, batzeko lekua... Urtarrilarekin batera jarri nahi dute martxan kontsumo taldea.

TOKIXAN PROIEKTUA

'Debagoiena 2030' sarearen baitan sortutako ekimena da Tokixan, elikagaien ekoizpen, banaketa eta kontsumo eredu agroekologiko eta kolektiboa sustatzea helburu duena. Lehen sektorearen beheranzko joerari eta errelebo faltari erantzuteko asmoz, bideragarria izango den eta lan baldintza duinak bermatuko dituen proiektu kolektiboen eredua sustatu nahi du. Ildo horretan, Oñatiko udalak Erguña-Etxebarri baserri inguruan lagatako lursailak garbitzen eta azpiegiturak prestatzen jardun dute Tokixan-eko kideek, eta orain ekoizpena egonkortzeko lantaldea osatu nahi dute. Horrez gain, ekintzailetza agroekologiko kooperatiboa sustatzeko formazio saioa ere jarri du martxan, eta datorren urtera begira formazioa osatzen duten pertsonentzako test-guneak egokituko dituzte.



Negutegietan 1.600m2 eta aire librean ia hektarea batekolursaila dauka TOKIXANek Zubikkagan

Mindfulness eta erlaxazioa



Iturrigorri Elkarlan elkarteak doako tailer zikloa eskainiko du Oñatin. Burua lasaitzen, gorputza erlaxatzen eta hobeto bizitzen laguntzea da helburua.

Udal Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan, osasunaren prebentzioan lan egiten duen Iturrigorri Elkarlan elkarteak 'Mindfulness eta erlaxazioa' tailer zikloa eskainiko du Oñatin azaroa eta abenduan zehar. Sei saio izango dira, eta gaur egun daramagun bizimoduak eragiten dizkigun antsietate eta estres egoerak hobeto kudeatzen eta gure osasuna zaintzen lagunduko diguten tresnak irakatsiko dira bertan. Iturrigorri elkarteko koordinatzaile Maribel Pachecok azaldu dizkigu xehetasunak.

Eguneroko martxan etenaldi bat egin, arnasa sakon hartu eta gure gorputzari entzutera animatzen duzue jendea. Beharrezkoa al da?

Bizi garen gizartean ia beti ari gara zerbait egiten, hurrengo zer egin behar dugun pentsatzen, gure betebeharrei eta kezkei erantzuten. Askotan pilotu automatikoan joaten gara eta ez gara konturatzen benetan nola gauden, ez fisikoki ez emozionalki.

Horregatik, geldialdi bat egitea garrantzitsua da. Gelditzeak ez du denbora galtzea esan nahi, kontrakoa baizik: elkarri entzuteko espazio bat ematea da, nola sentitzen garen onartzea eta zer behar dugun antzematea.

Batzuetan nekatuta, tentsioan edo kezkatuta egoten gara eta seinale horiei jaramonik egin gabe aurrera jarraitzen dugu. Horregatik, tailer honek errit-moa pixka bat jaistera, arnasa hartzera eta geure buruarekin konektatzera gonbidatzen gaitu. Autozainketa modu bat da, kontzientzia eta ongizate gehiagorekin bizitzen lagundu ahal diguna. Gogoeta hau egingo nuke: ezin dugu beti gure inguruan gertatzen dena aldatu, baina bizi dugunarekin beste era batera erlazionatzen ikas dezakegu.

Horretarako, Mindfulness eta Erlaxazioaren aldeko apustua egiten duzue. Zergatik? Zer ematen digute diziplina edo teknika horiek?

Elkarrekin oso ondo osatzen diren bi tresna dira, gure egunerokoan txerta ditzakegunak.

Mindfulnessa, edo arreta osoa, hemen eta orain gertatzen ari denari arreta jartzen ikastean datza, etengabe gure burua epaitzen ibili gabe. Gure burua iraganera joaten da askotan, egin genuenera edo egiteari utzi genionera, edo etorkizunera, kezkatzen gaituenera. Mindfulnessak orainaldira adeitasunez itzultzen laguntzen digu.


> **Denbora badaramazu esaten gelditu beharra daukazula, agian tailer hau aukera ona da horretan hasteko**

Erlaxazioak, bere aldetik, tentsio fisiko eta mentala murrizten laguntzen digu. Arnasketaren, gorputz-kontzientziaren eta hainbat ariketaren bidez, tentsioan noiz gauden antzematen eta tentsio hori askatzeko moduak aurkitzen ikas dezakegu.

Esango nuke mindfulnessak laguntzen digula presenteago egoten; aldiz, erlaxazioak baliabideak eskaintzen dizkigu atseden hartzeko eta gure aktibazio maila erregulatzeko. Biek

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK
• Era guztietako garbiketak
• Jabegoen eta elkarteen administrazioa
• Konponketa orokorrak
GAK
Garbitasunaren usaina
653 70 45 47
Oñati

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA
Etxe eta lokalen gestio orokorrak
• Administrazioa
• Informazioa
• Salmenta
• Haziendarekin
• Trafikorekin
• Herentziak, eta abar
Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es



▲ Iturrigorri Elkarlan elkarteko koordinatzailea da Maribel Pacheco eta berak gidatuko du Oñatiko tailer zikloa.

MINDFULNESS ETA ERLAXAZIOA

DOAKO TAILER ZIKLOA

EGUNAK:
Azaroak 12, 19 eta 26. Abenduak 3, 10 eta 17

TOKIA:
Euskaldun Berria Gela (Bidebarrieta kalea, 18)

ORDUTEGIA:
18:30 - 20:00

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA:
687 75 28 42 / maribelpachecos@gmail.com

ANTOLATZAILEA
Iturrigorri Elkarlan eta Oñatiko Udala

lagun diezagukete egunerokotasunari patxada handiagoz aurre egiten.

Zein da tailerraren helburua?
Helburu nagusia da parte hartzen duten pertsonek beraientzako espazio bat izatea eta eguneroko bizitzan erabil ditzaketen tresna erraz eta praktikoak ikastea, bizi-kalitate hobearen mesedetan. Pertsona bakoitzak bere burua pixka bat gehiago ezagutzea nahi dugu, bere beharrak identifikatzea eta bere errealitatearekin bat datozen zaintzeko moduak aurkitzea.

Eta, batez ere, konturatu dadila ez dela denbora asko behar: nahikoa izaten dira arnasketa kontzienteko minutu batzuk edo etenaldi txiki batzuk egitea egunean zehar, eguneroko betebeharrei aurre egiteko moduan diferentziak nabaritzeko.

Nolakoa izaten da tailerreko dinamika?
Saio praktikoak eta bizipenezkoak dira. Helburua ez da mindfulnessari buruzko hitzaldi teoriko bat entzutera etortzea, proposamen desberdinak esperimentatzea eta guretzat lagungarriak direnak aurkitzea baizik.

Arnasketa, gorputzaren kontzientzia, erlaxazioa eta arreta osoa lantzeko ariketekin egiten dugu lan. Gorputzaren sentsazioak behatzen ikasten dugu, nola gauden entzuten, eta arreta momentura eramaten.

Garrantzitsua da, halaber, giro lasaia eta konfiantzazkoa sortzea, pertsona bakoitzak bere erritmoan, exijentziarik gabe eta ezer frogatu beharrik gabe parte har dezan. Ez da beharrezkoa aurretik esperientzia izatea, ezta meditatzen jakitea ere.

Asmoa da parte-hartzaile bakoitzak bere praktikatzeko modua aurkitzea eta tailerretik kanpo, bere etxean, lanean edo eguneroko edozein unetan erabilgarri izango zaizkion tresnak eraman ahal izatea.

Saio bakoitza ordu eta erdikoa izaten da. Arnasketa ariketak egiten hasten gara, lasaitzeko, eta, jarraian, gorputza aktibatzeko ariketa lasai eta erritmiko batzuk (TAISO ariketak) egiten ditugu, flexibilitatea, zirkulazioa, koordinazioa hobetzen dutenak. Ondoren, gai ezberdinei buruz hitz egiten dugu: Mindfulnessa, emozioen kudeaketa, estresa, antsietatea, beldurrak, depresioa, barkatzearen garrantzia, meditazioa... Esan bezala, egoera horiek egoki kudeatzen lagunduko diguten tresna eta teknika ezberdinak aurkitzea da helburua.

Sei saio dira guztira. Denetara joatea derrigorrezkoa al da?
Egokiena sei saioetara joan ahal izatea da, tekniken ikasketa pro-

(Jarraitzen du)

NII moda
MODA BEREZIA
Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

ARANBURU ALTZARIAK
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73
ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK
LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

gresiboa delako. Ariketak errepikatu ahala, ohitu egin gaitezke horiekin, eta hobeto zerk funtzionatzen digun jakin dezakegu. Gainera, saioek aukera ematen digute tresnak pixkanaka barneratzen joateko, dena bat-batean ikasten saiatu beharrean.

Ulertzen dugu, hala ere, pertsona bakoitzak bere betebeharrak dituela eta ez dela erraza izaten saio guztietara etortzea. Beraz, interesa dutenak izena ematera animatzen ditugu eta aprobetxa dezala espazio hau ahal duen neurrian. Hori da garrantzitsuena.

Nori gomendatuko zenioke tailerrean parte hartzea.

Geldialdi txiki bat egin eta denbora behar duela sentitzen duen ia edonori. Estres handiarekin bizi diren pertsonei, burua kezkaz beteta dutenei, tentsio fisikoa sentitzen dutenei edo, besterik gabe, beren burua hobeto entzuten eta zaintzen ikasi nahi dutenei. Baina baita ondo daudenei eta beren bizitzan ohitura osasungarriak txertatu nahi dituztenei ere.

Ez da derrigorrezkoa une txar bat pasatzen egotea tailerrean parte hartzeko. Pertsona bakoitza bere egoera eta beharrekin iritsiko da, eta bakoitzak gauza ezberdinak aurkituko ditu. Agian geure buruari egin diezaiokegun oparirik handiena da geure buruari tarte bat eskaintzea, baina, tamalez, hori lehentasunen zerrendaren amaierarako uzten dugu askotan.

Urtetxo batzuk daramatzazue tailer hauek Oñatin ematen. Zein da balantzea?

Balorazioa oso positiboa da, uste dugulako espazio hauek beharrezkoak direla eta gero eta garrantzitsuagoa dela norberaren ongizateari denbora eskaintzea.

Batzuetan asko kostatzen zaigu gelditzea, behar dugula kontziente izanik ere. Horregatik, ordutegi zehatza duen espazio bat izateak, lagundua eta praktikara bideratua, denbora horrekin geure buruarentzat konprometitzen laguntzen digu.

Guretzat garrantzitsua da partaide bakoitzak tresnaren bat bereganatzea egunerokoan aplikatu ahal izateko

Teknikak ikasteaz gain, esperimentatzeko, deskonektatzea kostatzen zaien bakarrak ez direla deskubritzeko eta beste pertsona batzuekin espazio lasai bat partekatzeko aukera ere ematen dute tailer hauek.

Beraz, tailer hauen inguruko jakin-mina edo zalantzaren bat duten pertsona guztiak animatu nahi ditut galdetzera eta informatzera. Deitu dezatela lasai konpromiso barik. Ez da beharrezkoa aldez aurretik esperientzia izatea; ikastera eta esperimentatzera gatoz. Norbere buruari denbora bat eskaintzeko gogoz etortzea besterik ez da behar.

Guretzat, garrantzitsua da saioetan lantzen dena ez geratzea laurogeita hamar minutu horietan bakarrik, baizik eta parte-hartzaile bakoitzak tresnaren bat eraman ahal izatea eta gero bere eguneroko bizitzan erabili ahal izatea. ▪

"Hezur-muniaren emaile egitera animatu nahi ditut herritarrak. Leuzemia edo odolaren beste gaitz batzuk dituzten pertsona askorentzako itxaropen bakarra da"



Osasunaren prebentzioa eta autozaintza sustatzeaz gain, Iturrigorri Elkarlan elkarteak hezur-muinaren (*médula ósea*) donazioa ezagutzera emateko eta sustatzeko ere egiten du lan. Hain zuzen ere, elkartea 2007an sortu zen Arrasaten, leuzemia zeukan 4 urteko ume batentzako emaile konpatible edo bateragariia aurkitzeko helburuarekin. Izugarrizko erantzuna jaso zuten herritarren aldetik eta, beraz, lanean jarraitzea erabaki zuten leuzemia edota bestelako gaitz hematologikoren bat duten pertsonei eta senideei laguntzeko.

HEZUR-MUINAREN DONAZIOEN GARRANTZIA

Minbizi hematologikoren bat (leuzemia, linfoma, mieloma, aplasia...) dugunean tratamendu farmakologiko, erradioterapia edo kimioterapiaren bidez sendatzen saiatzen gara, baina bide horietatik lortzen ez bada, orduan ama-zelulen transplantea egin behar da eta hezur-muinak berebiziko garrantzia du, bertan produzitzen baitira odolaren zelula guztiak berritzeko gai diren ama-zelulak.

Kontua da, baina, hezur-muinaren transplantea egiteko gaixoarekin bateragarria den emailea behar dela, eta aukera portzentaiak oso txikiak izaten direla. Familiako inor bada bateragarria, estatu mailako REDMOra (*Registro Español de Donantes de Médula Osea*) jotzen da emaile bila. Horregatik, oso inportantea da erregistro horretan ahalik eta jende gehien egotea, horixe baita jende askorentzako sendabide bakarra, eta bihar edo etzi gutako edozein egon daiteke transplante beharrean.

NOLA EGIN EMAILE

Osasuntsu dagoen 18 eta 40 urte arteko edozein izan daiteke emaile. Interesatuek Gipuzkoako Transplanteen Koordinazio Zentrora (943 007 000) hots egin dezake. Informazioa jasoko edu eta aurrera jarraitu nahi badu, odol analitika bat egingo zaio bere 'matrikula' inmunologikoa zehazteko. Informazio hori Josep Carreras Fundazioak kudeatzen duen REDMO erregistrora bidaltzen da eta egunen batean agertzen bada zurekin bateragarria den gaixoren bat, orduan deituko dizute transplantea egiteko.

Hezur-muinaren donazioak ez dauka inolako arriskurik. Kasurik gehienetan odolaren bidez ateratzen dira ama-zelulak, eta kasu batzuetan ziztada txiki batzuk egiten dira aldaka inguruan. Haur jaioberrien zilbor hesteko odoletik ere atera daitezke ama-zelulak. Euskadin, bataz beste, 1.475 odoleko minbizi kasu diagnostikatzen dira.

“ZEREN ZAIN ZAUDE AURREZTEN HASTEKO?”

500 Mb-eko ZUNTZA

+ 2 MUGIKOR-LINEA

34,90 €/HIL
BEZa barne



Zatoz LIZKER INFORMATIKA dendara, kontrata ezazu zuntza + mugikor linea bat eta aukeratu zuretzat opari hau

LIZKER INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA

TLF: 943 090 600



(BEZa barne). Eta aukeratu aire bidezko frijigailua. Azaroen 1etatik 30ra. Eskaintzan kontratua baduzu: 500 Mb-eko zuntza + 2 mugikor-linea, dei mugagabeekin eta partekatzeko 50 GB-rekin, hilean 34,90 €. Instalazioan 229,90 €-ko deskontua, 3 hilabeteko iraupen-konpromisoarekin. 5G abiadura, estaldura eta 5G terminalera lotuta. Existentziak amaitu arte. Ikusi gainerako baldintzak hemen: www.masmovil.es

MASMOVIL

AURREZTU, ETA KITO

'Oroitzapenak / Recuerdos'
liburua plazaratu du Ernesto Unzurrunzagak

Gerraosteko Oñatiri buruz, sentimendu abertzalearen loratzeaz, 'Los Cabras' talde klandestinoan bizi izandako esperientziaz, Belgikan igarotako erbestealdiaz, diktadura ostean Euskal Herrian bizi izandako indarkeria giroaz eta gaur egun munduak dituen arazo nagusiei buruzko kontakizuna eta ikuspuntu pertsonala bildu ditu egileak. Liburua gaztelaniaz idatzita dago.



Oroitzapenak / Recuerdos izenburupean, bere ibilbide politiko, sozial eta pertsonalari buruzko hainbat oroitzapen eta gogoeta biltzen dituen liburua plazaratu du Ernesto Unzurrunzaga Galdosek (Oñati, 1946). Besteak beste, ETA erakundearen talde autonomo gisa jardun zuen *Los Cabras* taldean bizitako esperientzia kontatzen du, eta talde haren estrategia eta jardunari buruzko ebaluazioa egiten.

Izan ere, horixe baita liburu honen abiapuntua. Duela urte batzuk *Los Cabras* erakundeari buruzko ikus-entzunezko bat egin nahian zebilen herriko talde memorialista batek bere lekukotasuna eskatu zion, eta oroitzapen-ohar haiek irakurri ostean, hainbat senide eta lagunek kontakizun hura zabaldu eta osatzera animatu zuten Ernesto. Eta horren emaitza da 400dik gora orrialde dituen liburu interesgarri hau. Bere bizitzako hainbat pasarte kontatzeaz gain, erlijioari, politikari eta beste hainbat gairi buruzko iritziak ere bildu ditu Unzurrunzagak.

GERRAOSTEA ETA LANDA-BIZITZA

Liburua kronologikoki antolatuta dago eta gerra zibilean Oñatin jazotako hainbat gertaera latzen kontakizunarekin abiatzen da, bere familia-giroan eta bando galtzailearen biktimengan eragin zutenena. "Tamalez", dio, "gaur egun, oraindik, ez dago Oñatin haiek gogoratuko dituen memorialik".

Gose urteez, errazionamenduez, estraperloaz edota gerra osteko urteetan erlijioak jokatu zuen rolaz ere egiten du gogoeta. "Miseria ez zen ekonomikoa bakarrik, miseria morala ere bazegoen".

Mutikotan Aurreko Mendiko Olabarri baserrian igaro ohi zituen oporraldietako kontakizuna egiten du jarraian Unzurrunzagak, artean argindarrik ere ez zegoen garai haietako bizimodua gogora ekarriz. "Berrogeita hamarreko hamarkadan ezagutu nuen landa-bizitza, oraindik bizirik zegoenean. Baserriak bere burua hornitzen zuen, ia erabat". Sutondoan amamari entzundako gerrate karlisten garaiko istorioak ere jaso ditu.

NAZIONALKATOLIZISMOA


Gaztetan, zazpi eta hamalau urte bitartean, Maristen eskutik jaso zuen hezkuntza eredua jorratzen du hurrengo atalean. "Burmuin garbiketa bat izan zen", dio egileak; "Maristek nazionalkatolizismoan, Erregimenaren ideologian, hezi gintuzten. Nazionalismo frankistaren helburua zen gure identitate linguistiko eta kultural propioa ahantzaraztea, eta guretzako arrotza zen beste batean haztea, haurrok inkontzienteki asimilatzen genuena".

Cine Aloña, gerora *Los Cabras* taldeak jarritako lehergailu batek txikitu eta itxiarazi zuen zine aretoari buruzko oroitzapenak ere bildu ditu Unzurrunzagak. Bertan egon ziren enplegatuta gurasoak, eta Ernestok berak ere lagundu egiten zien. "Trukean, hantxe hasi nintzen Erregimenarenak eta Elizarenak ez ziren beste balio batzuk –duintasuna, bidegabekerien aurkako errebeldia...– transmititzen zuten filmak ikusten".

Zineak ez ezik, garai hartako irakurketek ere (Pio Baroja, Ernest Renan...) izan zuten eragina Unzurrunzagarengan eta, poliki-poliki, komunitate partikular bateko kide izatearen kontzientzia sortuz joan zitzaion. "Bereziki, George Steer-en *El árbol de Gernika* irakurri ostean hasi nintzen bonbardaketen biktimekin eta matxinatuen aurka borrokatu ziren Euzko Gudarosteko miliziano eta gudariekin identifikatzen".

PINTURAS
URBIA
MARGOAK
Ultzegin kalea, 3 - Behea B / 652 710 837

Catalana Occidente
Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak
Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:
Heriotza · Istripuak · Etxebizitza
Autoak · Ontziak · Aurrezkia
Bizitza · Osasuna · Laborantza
Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



Altuna eta Ibarrondo liburu dendetan eskura daiteke liburua 30 eurotan

'LOS CABRAS'

Arestian aipatu dugun bezala, 1966 eta 1968 artean ETAko talde autonomo gisa jardun zuen *Los Cabras* erakunde klandestinoaren baitan izandako bizipenen kontaketa ere egiten du Unzurrunzagak. Batez ere Oñatin burutu zituzten ekintzak gogoratzeaz gain, talde haren jardunaren gaineko balorazio pertsonala ere egiten du, talde haren burua zen Javier Zumalde *El Cabra*-ren estrategiaren egokitasunaz, eta burutu zituzten ekintzen zilegitasunaz, besteak beste.

Unzurrunzagak gogora dakar, halaber, nola lortu zuen ozta-ozta Guardia Zibilaren atzaparretatik ihes egitea etxera bila joan zitzaizkion gauean, eta nola iritsi ahal izan zen handik egun batzuetara Iparraldera, frantziskotar jantzita, 1968ko abenduan, *Los Cabras* taldea desegin zuen sarekadaren ostean.

ERBESTEALDIA

Lovainan (Belgika) erbesteratuta eman zituen zortzi urteen errepasoa ere egiten du egileak. Ekonomia ikasketak egin ahal izan zituen bertan, eta, besteak beste, Federico Krutwig eta Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegi' ezagutzeko aukera izan zuen. Azken honek euskarazko eskolak ematen zizkien. "Harrera adeitsu eta eskuzabaleko herrialdea izan zen Belgika, eta beti egongo gara eskertuak. Lovainan urte onak bizi izan genituen, agian gure bizitzako onenak, tutoretzarik eta kontrolik gabe, eta askatasun osoz".

Erbesteko urte haietan bere uste politikoak aldatuz joan zirela aitortzen du Unzurrunzagak. "Urte batzuk lehenago indarkeria justifikatu genuen askatasun ezagatik eta adierazpen edo ekintza politikorako beste biderik ez zegoelako, baina orain modu baketsuan borrokatzeko aukera zabaltzen zen, kartzelara edo erbestera eraman gintuzten ideia beren alde. Horregatik, hurbilago sentitu nintzen bide politikoa esploratzearen eta indarkeria uztearen aldekoak ziren EE koalizioa osatuko zuten alderdien ideia eta hausnarketetatik".

Hurrengo bi ataletan erbestetik itzuli ondorengo urteetan Euskadin bizi izan zen indarkeria giroaren analisia egiten du Unzurrunzagak: ETAren atentatuak, kale borroka, Estatuaren gerra zikina, torturak... Ildo horretan deitoratu egiten du ETAk Oñatin eragindako biktimak gogoratzeko eta errekonozitzeko ekitaldi edo ekimenik bultzatu ez izana maila lokalean, beste herri batzuetan egin den moduan.

Azken atalean, Unzurrunzagak gogoeta egiten du gaur egun mundua estutzen duten arazo nagusiei buruz eta Europa jokatzen ari den paperari buruz. "Gazteak ginenean eta diktadura gris eta *kutre* baten pean bizi ginenean, Europa zen gure mundua argitzen zuen itsasargia, giza eskubideen sehaska. Geroago, baina, historiak erakutsi digu bere jokabidea ez zela hain eredugarria izan eta ikuspegi idealizatua geneukala Europaren eta nazioartean zeukan jokabidearen inguruan".

OÑATIKO PROIEKTUAK

Bi eranskinekin osatu du liburua Unzurrunzagak. Batean Oñatiren garapena sustatzeko asmoz, herriko beste eragile batzuekin batera landu zituen hiru proiektu azaltzen ditu. Lehenengoaren helburua gure herriaren errepide bidezko konexioa hobetzea zen, merkataritza bide nagusietatik isolatuta gera ez zedin.

Bigarren proiektuak Oñati hiri unibertsitario eta teknologiko gisa garatzearen alde egiten zuen, eta hirugarrenak, ibilbide txikiena izan zuenak, memoria historikoari eta oñatiar identitateari lotutako museo bat sortzea proposatzen zuen, beste kultur ekimen batzuen motor gisa. "Horietako inork ez zuen aurrera egiteko behar adina babes instituzional eta herritarra aurkitu eta ez zuten aurrerabiderik izan".

Bigarren eranskinean, nazionalismoen aldeko eta kontrako argudioei buruzko gogoeta egiten du Unzurrunzagak, Kataluniako *procés*-ean gertatutakoa aztertzearekin batera.▪





Oñatiko Hezkuntza Komunitatearen diagnostiko partekatua gauzatu eta ekintza plana diseinatzeko prozesua jarriko du martxan Udalak

Udalak Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatearen eta Agirre Lehendakari Centerren bidelaguntza izango du

Oñatiko Hezkuntza komunitatean hamaika dira herriak dituen erronka ezberdinei erantzuteko lanean diharduten eragileak eta udal zerbitzuak. Hamaika ekimen eta proiektu gauzatu dira eta gauzatzen dira. Hala ere, ekosistema bizi honek baditu bere mugak: koordinazio eta aliantza sareen falta, proiektuen atomizazioa eta gainjartzea, Oñatiko herrian ditugun erronka berriak eta guzti horren gaineko diagnosi partekatu eza.

Horri erantzuteko prozesu ireki eta parte hartzailea ireki du Udalak; komunitateko kideek eurek erabaki dezaten zeintzuk diren kezkak, beharrak eta horiei erantzuteko lan ildo eta elkarlanerako egitura posibleak. Hori lortzeko komunitatearen entzute ariketa sakon bat oinarri izango duen prozesua abiatuko du. Entzute ariketa horretatik diagnosi partekatu bat gauzatu eta bertatik abiatutako lan ildo eta egiturak identifikatu nahi ditu Oñatiko Udalak.

2026ko Udaberrian asmo horren kontraste, adoste eta ezaugarritzerako aurre fase bat egin zen eta bertan prozesuaren beharra berretsi zen. Adostasun horretatik abiatuta, diagnostikoa bera gauzatu eta bertatik abiatuta ekintza plan bat diseinatzeko helburuarekin Oñatiko Hezkuntza Komunitatearen diagnostiko partekatua gauzatu eta ekintza plana diseinatuko dira orain. Horretarako Udalak Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatearen eta Agirre Lehendakari Centerren bidelaguntza izango du

OÑATIKO HEZKUNTZA KOMUNITATEAN HAMAIKA EKIMEN ETA PROIEKTU GAUZATU DIRA ETA GAUZATZEN DIRA. HALA ERE, EKOSISTEMA BIZI HONEK BADITU BERE MUGAK: KOORDINAZIO ETA ALIANTZA SAREEN FALTA, PROIEKTUEN ATOMIZAZIOA ETA GAINJARTZEA, OÑATIKO HERRIAN DITUGUN ERRONKA BERRIAK ETA GUZTI HORREN GAINEKO DIAGNOSI PARTEKATU EZA

Proiektuaren helburu orokorra honakoa da: Oñatiko Hezkuntza Komunitatearen diagnosi partekatua gauzatu eta bertatik abiatuta ekintza-plan bat diseinatzea.

Azpi helburuak:
- Hezkuntza komunitateko askotariko ahots eta ikuspuntuak jasotzea.
- Horietatik abiatuta diagnostiko partekatu bat eraikitzea.
- Diagnostiko partekatu horri erantzungo dion ekintza plan bat adostea.

LAU FASE

Prozesua sei bat hilabete luzatzea espero da. Lau fase izango ditu. Lehenengoan, entzute prozesua gauzatuko da hezkuntza komunitateko askotariko ahots eta ikuspuntuak jasotzeko. Bigarrenean, ahots horietatik narratiba ezberdinen identifikazioa egingo da, entzute-prozesuan agertutako gai eta ikuspegi nagusien identifikazioa. Hirugarrenean aldaketarako aukera eta palanken identifikazioa egingo da. Eta azkenik, laugarrenean ekintza plana sortuko da, bai eta berau aurrera eramateko lan-taldeak.

Prozesua amaitzeko, diagnostiko partekatuaren eta ekintza-planaren azken memoriaren itzulera-saioa egingo da herritarrekin.

Huheziko eta Udaleko Hezkuntza eta Haur eta Gaztedia sailetako ordezkari politiko eta teknikoez osatutako lan taldeak egingo du prozesuaren jarraipena.

ZURICH
Mª del Mar Urrutia Negueruela
Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

Gezalaga Margoak
Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

Enpresa txiki eta ertainei zuzendutako prestakuntza programak

Debagoieneko Mankomunitateak enpresa txiki eta ertainen beharrei erantzuteko bi prestakuntza-programa antolatu ditu, Foru Aldundiaren laguntzarekin. Helburua da enpresei eguneroko kudeaketan dituzten erronkei aurre egiten laguntzea, haien lehiakortasuna eta erabakiak hartzeko gaitasuna indartuz. Bi programek ikuspegi praktikoa izango dute eta enpresetako arduradunei beren errealitatera egokitutako tresnak eskainiko dizkiete: alde batetik, belaunaldi-erreleboa eta ezagutzaren transferentzia; bestetik, negozioaren datu ekonomikoak ulertzea eta erabaki hobeak hartzea. Informazio gehiago: ***www.debagoiena.eus / 943 793 090 / enpresa@debagoiena.eus***. Hona hemen bi programak.

Belaunaldi-erreleboa eta ezagutzaren transferentzia enpresa txikietan

• **Azaroak 5:** Funtsezko lanpostuak, pertsonak eta ezagutzak identifikatzea.

• **Azaroak 12**: Erreleboarekin lotutako arriskuak hautematea eta lehenestea.

• **Azaroak 19**: Ezagutza transferitzeko tresna errazak ezagutzea.

• **Azaroak 26**: Ibilbide-orria eta ekintza zehatzak definitzea.

> Izena ematean aholkularitza pertsonalizatua jasotzeko interesa adieraz daiteke.

Negozioaren zenbakiak ulertu eta erabaki hobeak hartzea, Innobiderekin

• **Azaroak 6**: Balantzea, emaitzen kontua eta diruzaintza ulertzea.

• **Azaroak 13**: Kostuak, marjinak, prezioak eta errentagarritasuna aztertzea.

• **Azaroak 20**: Likidezia, kobrantzak, ordainketak eta kontrol ekonomikoa.

• **Azaroak 27**: Adimen artifiziala (ChatGPT eta Copilot) negozioa aztertzeko eta erabakiak hartzeko.

'Bertakoak' aparkatzeko txartelak berritu edo ezeztatzeko eprea ireki da

2027 urtera begira, Bertakoak guneetan aparkatu ahal izateko TAO txartelen alta berriak eta bajak tramitatzeko epea ireki du Udalak. Alta emateko agiri hauek aurkeztu behar dira: autoaren zirkulazio baimena eta kontu korronte zenbakia, urteko kuota ordaintzeko. Baja emateko, nahikoa da eskaera orria betetzea. Kontrakorik jakinarazten ez dutenei automatikoki berrituko zaie txartela. Baterako zein besterako, abenduaren 30era arteko epea egongo da, udaletxeko HAZ bulegoan (7:30-15:30).

Olabarrietan mugatu eta digitalizatutako lursailen liburuxkak banatuko dituzte

Olabarrieta auzoko 434 partzela hartzen dituzten Oñatiko 13 eta 14 poligonoetako lursailak mugatu eta digitalizatu ditu *Geograma* enpresak –udalaren eskariz– lur-jabeen laguntzarekin. Orain, lursail bakoitzaren muga eta mugarrien planoak eta koordenatuak jasotzen dituen liburuxkak banatuko zaizkie jabeei azaroaren 9 eta 10ean, Santa Ana antzokian (9:30-14:00 / 15:00-17:00). Bertara joaterik ez dutenek udaletxeko HAZ bulegoan jaso ahal izango dute azaroaren 25era arte. Jasotako dokumentazioarekin desadostasunen bat dutenek 30 eguneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko, HAZ bulegoan sarrera emanda. Zalantzak argitzeko: 954 041 064 (Geograma). Dokumentazioa formatu digitalean ere jaso nahi izanez gero, mezu bat bidali behar da *deslindes2@geograma.com* helbidera.

Ekintza egitarau oparoa Pake Lekun

Askotariko ekitaldiak (gastronomia, artea, bingoa, bidaia, antzerkia...) biltzen dituen egitaraua prestatu du Pake Lekuk azarorako.

• AZAROAK 7: **Olagarro Eguna** (Pulpeiro). Pake Lekun, 12:00-14:00 eta 19:00-21:00. Prezioa: 15 euro errazioko.
• AZAROAK 12: **Marrazketa tailerra** Pernan Goñi Olalderekin (18:30).
• AZAROAK 19: **Bingo berezia** (17:00).
• AZAROAK 20: **Bidaia**: Olite-Uxue-Zangotza
• AZAROAK 25: **Gaztaina jana** (18:30)
• AZAROAK 27: **Antzerkia**. Ikusi Makusi taldearen '***Ospitaleko gorabeherak***' obraren estreinaldia Pake Lekuko bazkideentzat. (Santa Ana, 18:00). Dohainik.

ARGAZKI LEHIAKETA. Pake Leku elkarteak udan antolatutako argazki lehiaketan Jose Ignacio Markuletaren '*Olatuaren soinua*' argazkiak jaso du epaimahaiaren lehen saria. Pake Lekuko bazkideen botoz erabakitako saria, aldiz, Ismael Etxeberriaren '*Ihauteriak*' argazkiarentzat izan da.









Saritutako argazkiak eta egileak, Jose Ignacio Markuleta eta Ismael Etxeberria, saria jasotzen

Emakumion Etxia
Izan parte!

Gogotsu hasi da ikasturtea Emakumion Etxian

Ikasturtea gogotsu hasi dugu Emakumion Etxian. Jabetze Eskolaren 16. Ikasturteari ekin diogu: 12 ikastaro eta 3 talde ireki ditugu martxan. Herritarren aldetik Etxiak izandako harrerarekin pozik gaude: 160tik gora emakume eta gizonek eman dute izena ikastaro eta taldeetan.

Etxian denetariko **talde irekiak** aurkitu ditzakezu, baita zure talde propioa osatu ere!

Bada emakumeen talde bat **ortugintza lantzen duena**: haziak ereitearekin batera, elkarrekin haztea da helburua. Oñatiko landagunean zein herrigunean ortua lantzen duten emakumeei irekita dago, baita lurrik izan ez eta ortua landu nahi dutenei ere. Jakituriak, egiteko moduak eta elkarlaguntzeko sareak sortzea da asmoa.

Amatasunean bidelagun izateko taldea ere badugu: amatasunak anitzak dira eta prozesu horiek ezinbestean galderak, erronkak eta aldaketak ekartzen ditu. Sinesten dugu bide hori ez dugula zertan bakarrik bizi behar eta elkarrekin ibilita, eraldaketara aukera ederra bilakatu daiteke.

Emakume migratuentzako sostengu taldea ere abiatu dugu: migratu ondoren norbere etxea nola berregin izan zuten hizketagai lehen saioan. Elkar ezagutzea, esperientziak partekatzea eta elkarri babesa ematea da taldearen helburua.

Horiez gain, badira beste bi talde etxian batzen direnak: **kakorratza** eginez, barruko korapiloak askatzen dituzten emakumeen **taldea** eta **emakume sortzaileen taldea**. Sormena ere partekatuz gero eraldatzailea izan daitekeela sinesten dugu.

Etxian hileroko programazioa izango dugu, erakusketa, hitzaldi, bakarrizketa, antzezlan, zine proiekzio eta abarrekin. Ekintza irekiak izan ohi dira gehienak, doan eta sarrerarik gabeak.

Ehunda pertsona hurbildu dira bi hilabeteotan izan ditugun jardueretara. Bi ikuskizun izan ditugu eta erakusketa esanguratsu bat: **Oñatiko emakumeek fabriketan egindako (ezinbesteko) lana** ikerketa ikusgai izan genuen irailean. 14 bisita gidatu eskaini ziren eta 200 herritar inguruk parte hartu dute.



◄Ezkerrean, ***Oñatiko emakumeek fabriketan egindako (ezinbesteko) lana*** ikerketa lanari buruzko erakusketara egindako bisita gidatuetako bat.

▼Behean, dolu perinatalari buruz egindako hitzaldiko une bat.



Azken aipamena egin nahi diogu **dolu perinatalari buruz izandako hitzaldiari**. Esku Hutsik Elkartearen eskutik jaso genuen eta dozenaka emakume gerturatu ziren Etxera. Hitzaldia gogorra, hunkigarria, beharrezkoa eta erreparatzailea izan zen bertaratutako askorentzat. Haurra galdu duten ama eta familia guztien Etxea ere bada hau eta jarraitu nahi dugu baliabideak eskaintzen doluak modu duinean bizi ditzagun.


EMAKUMION ETXEKO AGENDA

Silvia Staffolani oñatiarraren *1724 Noches* dokumentala emango dute azaroaren 17an

Ondoren, zuzendariarekin berba egiteko aukera egongo da

Emakumion Etxiak azarorako antolatu dituen ekintzetatik azpimarratzekoa iruditu zaigu Silvia Staffolaniren **1724 Noches** dokumentalaren estreinaldia. Paristik Buenos Airesera ihes egin duen Michelle emakume afro-frantseraren bizipenak ditu ardatz. Bere seme-alabak aitaren sexu abusuetatik babesteko ahaleginean, sinesgarritasun galerari, kartzelari eta isolamenduari aurre egin behar die. Lehen pertsonan idatzitako testigantzaren eta abokatuen, psikiatra baten, epaile baten eta *Face à l'incest* erakundeko presidenteordearen ahotsen bidez kontatua dago filma, eta indarkeria instituzionalaren, arrazakeriaren, migratzaileen esperientziaren, belaunaldi arteko traumaren eta hitz egitearen prezioaren erretratua da.

"Haurren eta emakumeen eskubideen alde diharduen lagun aktibista baten bidez ezagutu nuen Michelle. Paristik Buenos Airesera ihes egin zuen 5 eta 8 urteko bi haurrekin. Geroztik haren ondoan egon nintzen eta bere babesgabetasunaren lekuko izan nintzen, haren profuga-garaiaren, kartzela aldiaren eta emakume migrantearen bakardadearen lekuko", azaldu digu Silviak. "Haur eta nerabe askok isilean bizi duten drama baten kontzientzia eta ikusgarritasuna sortzeko asmoz egin nuen dokumentala. Helduon zeregina da haurrek haurtzaro zoriontsua izan dezaten zaintzea ".





Argentinarra sortzez, 1993an iritsi zen Oñatira Silvia Staffolani. Bere aurreneko filma da ***18724 Noches*** dokumentala

AZAROKO AGENDA:

- ERAKUSKETA**: Min(bizi)** Izan Inurri elkartearen eskutik. Azaroak 3 - 20



Erakusketak minbiziaren errealitatea eta aldarrikapen bat marraztea proposatzen du. Elkartearen ibilbidea eta Hil arte Bizi leloaren esanahia azaltzen dira, eta tribuak, zaintzak, ahalduntzeak eta ikuspegi feministak minbiziaren bizipenean, laguntzan eta ulermenean duten garrantzia balioesten da.

- ZINE PROIEKZIOA ETA SOLASALDIA**: Aro berria** Irati Gorostidiren filma. Ondoren, solasaldia Aimar Uribesalgo eta Maite Mugerza aktoreekin. Azaroak 9 (17:30). Gela handian.
- DOKUMENTALAREN ESTREINALDIA ETA SOLASALDIA**: 1724 Noches** Silvia Staffolaniren dokumentala. Ondoren solasaldia zuzendariarekin. Azaroak 17 (17:30). Gela handian.
- BAKARRIZKETA**: Min(bizi)** Olatz Mercaderren eskutik. Eskilarapean (18:00).
- AZAROAK 25**:** Adi Sare Feministak egingo dituen deialdiei.

Mutilei eta gizonei zuzendutako ikastaro zikloa

Mutilei eta gizonei zuzenduriko ikastaro zikloa antolatu du Emakumion Etxiak.

> AITATASUNA. Barrura begirada bat

Azaroan aita diren gizonei zuzendutako ikastaroa egongo da. Bi saio izango dira, hilaren 4 eta 18an (17:00-19:00).

> GIZONTASUNA KIROLEAN: Lidergo osasuntsuak eraikitzen

Ikastaro hau 16 urtetik gorako mutilei eta gizonei zuzenduta dago, kirolari, entrenatzaile eta elkarteetako kideei. Bi saio izango dira, abenduaren 2 eta 16an.
Baterako zein besterako izen-ematea zabalik dago Etxiaren web orrian edo harreran.

> GIZONTASUN BERRIAK

Urtarrilera begira lantalde berria abiatu nahi da, taldekideen behar eta erritmoen arabera definituko dena: 'Gizontasun berriak: elkarrekin hausnartzeko espazioa'. Bakoitzaren bizipenak partekatu, jasotako ereduak berrikusi eta gizontasuna bizitzeko modu berrietan arakatzea bilatuko du espazio honek.

ANE MERTZERIA
• Josteko zerak
• Lentzeria
• Umeen jantziak
Kale Barria, 54 OÑATI

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraen izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.:943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Beskoitze: eskerrik asko!

Koldo Zumalde Barrena

Urriak 10, Euskararen Eguna Lapurdiko herrian. Hantxe ginen goizeko 10:00etan. Ongietorria. Jarraian, ezagutu ditugu hamar urteotan ikastola osatu duten prefabrikatuak; eta ondoren, berria izango denari alabantza. Handik herriko etxera, non hango/hemengo hautetsi eta ordezkariek eskaini baitigute ekitaldi gogoangarria: bostekoak, hitzak, esku erakutsiak...

Eraman gaituzte pilotalekura segidan: zintzur bustitzea Leizarraga abesbatzaren kantuak entzunez. Bazkaria, hango-hemengo txikien pilota partidak eta dantzak. Emazte beskoiztar batek honelaxe zekusan: "*Jumelage zinez goxoa*". Ezin guk hobeto deskriba.

Horrelako egun batek, bistan da, urteetako lan isila du ezkutuan: anonimo zaizkigun pertsonak, Txantxiku Ikastolaren bizkarrezurra, udala, Oñatz, A. Mendi... Eta sari itzela ordain: aurki beskoiztar umeek zapalduko duten eraikin ikusgarria. Segi beza elkartasunak, segi harremanak.

> OHAR ETA DEIALDIAK <

Bertsolari Txapelketako finalera joateko AUTOBUSA

Abenduaren 20an, Iruñeko Nafarroa Arenan ospatuko den Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako final handira joateko autobusa antolatu Txinparta Bertso Eskolak.

- **Irteera ordua**: 8:15
- **Tokia**: Correoseko geltokia
- **Salneurria**: 18€.
- **Salmenta puntua**: Txokolateixa, azaroaren 10etik aurrera.

Finalerako sarrerak agortuta daude.



Oñatiko Udala

Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:
Oñatiko Udala
Zuzendaria:
Iñigo Arregi
Publizitatea:
Iñigo Arregi
Diseinua eta Maketazioa:
Iñigo Arregi eta Jabier Erostarbe (azala)
Kolaboratzaileak:
Roberto Altuna, Gaztelekua Natur Eskola eta udaleko Berdintasun saila
Inprimategia: Gertu
Tirada:
5.500 ale
Lege gordailua:
SS-357/91
Posta-e:
kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

Cartonajes Arregui, S.A.
• Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
• Enbase eta enbalajeen fabrikazioa
Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI





Arantzazuko Mikopoteoa AZAROAREN 14AN

Mikopoteo jardunaldiaren hamahirugarren edizioa egingo dute Arantzazun azaroaren 14an, latunbata, Arantzazuko Adiskideak elkarteak, ArantzazuLab-ek eta Gipuzkoako Parketxe Sareak antolatuta, Oñatiko udalaren eta Arantzazuko Santutegia Hotela, Goiko-Benta eta Sindika jatetxeen laguntzarekin.
Ohi bezala, mikologiari buruzko hitzaldia egongo da aurrena, Amaia Diaz de Monasterioguren nutrizionistaren eskutik (Gandiaga Topagunean, 17:30etan). Ondoren (19:00-21:00) mikopoteoa egingo da Arantzazuko hiru ostatuetan. Mikopintxo bakoitzak 1,5€ balioko du eta edariaren prezioa ostatu bakoitzaren araberakoa izango da.

EGITARAUA:



• HITZALDIA / 17:30-18:45
'Perretxikuak eta onddoak, udazkeneko altxorrak, basoko zaporeak'. Hizlaria: Amaia Diaz de Monasterioguren (nutrizionista). Gandiaga Topagunean.

• MIKOPOTEOA / 19:00 - 21:00
Arantzazuko Santutegia Hotela, Goiko-Benta eta Sindika ostatuetan. (Mikopintxoa: 1,5€; edariaren prezioa osatuaren araberakoa).

Nafarroa hegoaldeko euskalgintzaren aldeko saskiak martxan





Nafarroako erdialdeko eta hegoaldeko euskalgintzari laguntzea helburu duen Errigora ekimenak 'Euskarari puzka' udazkeneko kanpaina jarri du abian. Erriberako produktuz osatutako 3 saski mota eskatzeko aukera dago 60, 65 edo 75 eurokoak. gogoratu, bildutakoaren %25 bideratzen dela euskalgintzara. Aurten, gainera, landatu daitezkeen orriz osatutako egutegi berezi bat ere atera dute Lodosako Ibaialde ikastolaren alde 10 eurotan (5 euro bideratuko dira ikastolara). Azaroaren 12ra arteko epea dago eskaerak egiteko ***Errigora.eus*** atarian.

'Zuk erosi, guk saritu!' kanpainan 3.800 euro banatuko ditu TXANDAk

'Udazkenean zuk erosi, guk saritu!' kanpaina jarri du martxan TXANDA dendarien elkarteak eta, hala, azaroaren 20ra bitartean 100 euroko 38 sari zozkatuko ditu TXANDAko saltokietan erosketak egiten dituzten bezeroen artean. Azaroaren 20an bertan egingo dute zozketa eta sarituek astebeteko epea izango dute jasotako gastatzeko, saria suertatu zaien saltokian bertan. TXANDAk Oñatiko udalaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren laguntza jaso du kanpaina honetarako.

Murgialdai txakolindegiko Aritz Galdosek **Baccus** saria jaso du

Donostiako *Viniapolis* ardandegiak urtero ematen duen saria da *Baccus*, eta ardoaren kultura zabaltzen ahalegin berezia egiten duten pertsonei egiten die aitortza. Aurten, 27. edizioan, Murgialdai txakolindegiko Aritz Galdos saritu dute. Murgialdai baserrian mahastigintza eta txakolina berreskuratzen egindako ahalegina aitortu nahi izan diote.







OÑATIKO GAZTELEKUA - VERDURI HALL musikaz eta herriko talentuz betetako negua

Urriaren 17an eman genion hasiera Verduri Hall-eko kontzertu denboraldiari, **White Carters eta Sugramas** taldeen eskutik. Beste udazken - negu batez, musikak eta zuzeneko emanaldiek hartuko dute gure aretoa, askotariko estiloak, proposamenak eta publikoak elkartzeko asmoz. Izan ere, musika bizitzeko eta partekatzeko espazioa izateaz gain, Verduri Hall herriko kultur eskaintzaren topagune ere bada.

Denboraldi berri honek hainbat berritasun dakartza. Oraingoz, ez dugu gaueko kontzerturik izango, eta emanaldien hasiera-ordua 19:30era aurreratu dugu, matinee kontzertuen ohiko ordutegia bere horretan mantenduz. Horrez gain, kontzertuetara erosoago etorri ahal izateko, sarreran berokiak uzteko zerbitzua jarri dugu martxan. Aldaketa txikiak dira, baina hauekin kontzertuetara gerturatzen direnentzako esperientzia atseginagoa eskaintzea dugu helburu.

Musika eskaintza, nolanahi ere, izango da denboraldi honetako protagonista nagusia. Gaztelekutik antolatutako kontzertuez gain, Gipuzkoan Gazte Tour ekimenak antolatutako jaialdia hartuko dugu azaroaren 21ean. **Maskak Iparraldeko taldea eta Aiert bakarlari oñatiarra** izango ditugu gurean. Pop-rockaren eta poparen doinuak elektronikarekin uztartzen dituzten bi proposamen ezagutzeko aukera izango dugu, bakoitzak bere nortasun eta ukitu propioa ematen baitie abestiei.

Azaroaren 29an, igandez, berriz, denboraldiko lehen matinee kontzertua izango dugu, 12:30ean. **Moonshine Wagon** laukoteak harizko instrumentuen bidez heavyaren eta bluegrassen arteko zubi berezia eraikiko du. Ohiko etiketetatik harago doan proposamena da, estilo desberdinak uztartuz entzulea harritzeko eta musikaz beste modu batera gozatzeko gonbita egiten duena.

Abenduaren 20an, etxeko txikienen txanda izango da, **Go!azen**-en kontzertuarekin. Ez du aurkezpen handirik behar, eta belaunaldi gazteenen artean duen arrakastak argi erakusten du musikak adin guztietako pertsonak elkartzeko duen gaitasuna.

Urte amaierari indarrez helduko diogu abenduaren 26an, **Cobra eta Nuevo Catecismo Católico (NCC)** taldeekin. Kontzertu horrek, gainera, badu guretzat osagai berezi bat: Iñigo Ibarrondo oñatiarra *Cobra* taldeko baxu-jotzaile gisa arituko da oholtza gainean. *Sharon Stoner* taldeko frontman ohia beraz bertan izango dugu. Herriko musikariek Euskal Herriko musikaren eszenan egiten duten ekarpena gertutik ezagutzeko beste aukera bat izango da.

Urtarrilaren 10ean, bigarren matinee kontzertua iritsiko da, **Ibil Bedi**ren eskutik. Taldeak *Badaezpada* disko berriaren aurkezpen biraren barruan egingo du geldialdia Oñatin. Proiektu horretan ere herriko zenbait sortzailek euren lekua izan dute: Anje Arlanzonek bideoklipen argiztapenean, eta Itziar Ugartek disko berriko abesti bati hitzak jarriz. Musikaren atzean dagoen sormen-lan kolektiboa agerian uzten duten ekarpenak dira horiek.

Egitarauari begiratuta, argi dago askotariko musika entzuteko aukera izango dugula negu honetan Verduri Hallen: popa, rocka, elektronika, bluegrassa, heavyaren ukituak eta gazte zein familientzako proposamenak. Baina programazio honen balioa ez dago soilik estiloen aniztasunean. Herriko musikariek eta sortzaileek ere protagonismoa dute, bai oholtza gainean, bai musikaren inguruko bestelako sormen-lanetan.

Eta amaitzeko, *spoiler* txiki bat: udaberriko denboraldian ere herriko artistek eta sortzaileek beren lekua izango dute programazioan. Baina oraingoz, neguaz gozatzea dagokigu. Elkartu gaitezen Verduri Hallen, musikak batu gaitzan.

GAZTELEKUKO SOTOA: KONPONKETAK ETA BERRIKUNTZAK

Gaztelekuko Sotoan egin beharreko konponketa-lanak amaitzear dauden honetan, eta espazioa berrantolatzeko aukera izango dugula kontuan hartuta, Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak egokitzat jo du une hau aprobetxatzea instalazioan hainbat hobekuntza eta berrikuntza egiteko.

Hala, Oñatiko udala aukera hau baliatzen ari da instalazioan, materialean eta espazioen antolaketan egin daitezkeen hobekuntzak aztertu eta gauzatzeko. Azterketa horren emaitzen arabera, egokitzat jotzen diren neurriak hartuko dira, haur eta gazteen beharrei ahalik eta modu egokienean erantzuteko.

Lan eta egokitzapen horiek egin bitartean, behin behineko neurri gisa, Bidebarrietan dagoen Euskaltegiko espazioa egokituko da. Horrela, **haurrak dituzten familiek orain arte Euskaltegiak erabilitako espazioa erabili ahal izango dute behin-behinean**, zerbitzuaren ohiko funtzionamenduarekin jarraitu ahal izateko. Egoera hau berrantolaketa eta egokitzapen prozesu baten barruan kokatzen da, eta lanak amaitu eta espazioa prest dagoenean, Gaztelekuko Sotoa berriz erabiltzeko moduan egongo da, baldintza hobeetan. ▪

OÑATI, GARBIA?

Gaur egungo gizartean, hondakinen kudeaketa erronka handienetako bat bihurtu da. Gipuzkoako eta Debagoienako batez bestekoen arabera, herritar bakoitzak urtean 400 kg inguru hondakin sortzen ditu guztira (etxekoak, komertzialak eta garbigunekoak barne hartuta), eta kopuru horrek, orokorrean, gora baino ez du egiten. Baliabideen kontsumo azkarra eta "erabili eta bota" kultura dira, besteak beste, zabor-kantitate handi horren erantzule.

Oñatiko eta Debagoienako gaikako bilketa tasa %78 ingurukoa da, Euskal Herriko eta Europako altu-enetakoa; baina, askotan, hondakinek, zabortegian edo birziklatze-plantan amaitu beharrean kaleetan, erreketan, itsasoan... ere bukatzen dute. Baita gure herrian ere.

'Oñati, garbia?'
argazki-lehiaketa antolatu dugu, eta titulu horrekin bat datozen argazkiak bidaltzera animatu nahi ditugu herritarrak

LEHIAKETA

Hori horrela izanik, gure herriko errealitatea aztertu eta hausnarketarako aukera zabaltzeko asmoz, ***"Oñati, garbia?" argazki-lehiaketa egingo da.*** Tituluarekin bat datozen argazkiak bildu nahi ditugu. Argazki horiek, herriko puntu kritikoak detektatzeko baliagarri izango dira. Abenduan argazki-erakusketa egongo da ikusgai herriko plazan.

Horri lotuta, herritarrak argazkilaritzan trebatzeko asmoz, Itziar Bastarrikak ikastaroa emango du, hilaren 28an.

Herritar guztiak animatu nahi ditugu argazkiak bildu eta parte hartzera. Interesgarri ikusten dituzuen argazki guztiak dira ongi etorriak! Animatu!

LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO:

- Gaia: Oñati, garbia?
- Argazkiak bidaltzeko helbidea: *natureskola@yahoo.es*
- Argazkiak bidaltzeko azken eguna: abenduak 4
- Posible bada, argazkiaren data eta kokalekua adierazi.

ARGAZKI ONENEK SARIA IZANGO DUTE!

1. saria: **100€**; 2. saria: **60€**; 3. saria: **40€.**



Urriaren 17an bailara mailako erreka garbiketa auzolana egin zen. Guztira 300 bat lagun aritu ziren erreketatik zaborrak jasotzen. Plastikozko poltsak, latak, metalezko elementuak, sofak, lanparak, patineteak... jaso ziren. **Mila esker auzolanera bertaratu zineten guztioi!**

HERRITARREI ZUZENDUTAKO ESKAINTZA

AZAROAK 28, LARUNBATA
NATUR ESKOLAN, 10:00-13:00

Argazkiak ateratzen ikasi nahi?

> Argazkilaritza ikastaroa mugikor edo kamera automatikorako: konposizioa, kolorea, argia... Itziar Bastarrikaren eskutik.

> Ikasle eta herritar orori zuzendutako saioa. Ez da inolako esperientziarik behar.

> Izena ematea beharrezkoa da, **633509781** telefonora deituta edo mezua bidalita. Azken eguna, azaroaren 26a.

MENDI HAMABOSTALDIA - 2026

1974ko Tximist Espedizioa Everestera izango da aurtengo protagonista, erakusketa eta pelikula banarekin

Juanito Zelaia oñatiarraren laguntzarekin, Everest gailurrean ikurrina ipintzeko asmoz 1974an antolatu zen espedizioa gogoratuko dute aurtengo mendi hamabostaldian, erakusketa eta pelikla banarekin. Orduko hartan zz zuten gailurra zapaltzerik lortu; Felipe Uriarte eta Angel Vallejo Rosen hego-lepoko balkoira (8.530m.) iritsi ziren, baina haize ufada bortitzek ez zieten goraino iristeko aukera txikiena ere eman. Hala ere, Tximist espedizio hark Everesteko ateak erdi zabalik utzi zituen, ondorengo belaunaldiek parez pare zabal zitzaten. Espedizio hari buruzko erakusketa ederra dago ikusgai hilaren 22ra arte, eta, hilaren 11n saiakera hartako protagonistetako batek, Txomin Uriartek, '***Tximist espedizioa***' filma aurkeztuko du.

Horiez gain, Sergi Ricart alpinista katalanak Mekong ibaian zehar egindako bizikleta-bidaia eta eskalada saioen inguruko emanaldia eta Bilboko Mendi Film Festivalen aurkeztutako harribitxietako batzuk ikusteko aukera izango dugu. Ikusi ondoko egitaraua.



Juanito Zelaia oñatiarraren laguntzarekin antolatu zen espedizio hura 8.530 metrora iritsi zen eta munduko gailurrik garaienerako atea ireki zuen



• ERAKUSKETA
1974ko Tximist Espedizioa Everestera. Argazki erakusketa. Kultur etxean, azaroak 3-22

• IKUS-ENTZUNEZKOA
'**Mekong ibaian zehar**'. Sergi Ricart alpinista katalanak. Azaroak 10, asteartea. Zine aretoan (19:00). Dohainik.

• IKUS-ENTZUNEZKOA
'**Tximist espedizioa**'. 1974ko espedizioari buruzko pelikula, Txomin Uriartek aurkeztua. Azaroak 11, asteazkena. Zine aretoan (19:00). Dohainik.

• BBK MENDI FILM FESTIVAL
Zine-Klub saioa'. Iazko Mendi Film Festival-era aurkeztutako bost pelikula ikusteko aukera. '***Retro***' (12'), '***Aldabide***' (12'), '***Dear Superhero***' (14'), '***Un día al año***' (16') eta '***Trango***' (45'). Azaroak 12, osteguna. Zine aretoan (19:30). Sarrera: 5,50€

> MENDI FEDERATU KANPAINA

Datorren urtera begirako federatu kanpaina jarri du martxan Aloña Mendiko Mendi sailak. Altak, bajak edo aldaketak aurrez aurre edo posta elektroniko bidez tramitatu ahal izango dira.

AURREZ AURRE. Aloña Mendiko ordezkariak hiru egunetan (azaroak 16, 18 eta 25) egongo dira klubaren bulegoetan 19:00etatik 20:00etara, federatu txartelaren altak, bajak eta aldaketak izapidetzeko.

KORREO ELEKTRONIKOZ. Emailez ere egin ahal izapidetu ahal izango dira alta, baja edo estaldura aldatzeko eskaerak, mezu bat bidalita *alonamendi.mendi@gmail.com* helbidera, azaroaren 26a baino lehen.

> MENDI IRTEERA / Azaroak 15

Oñatiko Ibilbideak: Udana-Korosti Mendi-Jentiletxe-Oregi-Arranoaitz-Korosomuño-Lizargarate-Oñati

Aloña Mendik azarorako prestatu duen mendi ibilaldiak herriko Aurreko Mendi ingurua zeharkatuko du, nahikoa ezaguna den ibilbidea jarraituz (16 km. / +750 m.). Ez du inolako zailtasunik. Irteera goizeko 8etan izango da, postetxe parean. Izena emateko epea: azaroak 5 - 12, alonamendi.mendi@gmail.com helbidera idatzita. Prezioa: 10€. Gogoratu, irteeran parte hartzeko federatuta egon behar dela. Bukaeran luntxa egongo da Pago Uso elkartean.

JUANJE MARGOAK
627 818 247

carpintería
GARIBAI
aroztegia
Mota guztietako zurgintza-lanak
Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

Handia egin du Mikel Ugartek

13. sailkatu da Munduko Ironman Txapelketan, Hawaiin



Mikel Ugarte Konako helmugara iristen

Hawaiira abiatu aurretik esan zuen ez zela konformatuko han egotearekin, postu bakoitza lehiatzeko asmoz aterako zela, baina onartu, hala ere, bere ametsik gozoenetan ere ez zuela pentsatu halako postu bat lor zezakeenik. Hawaiin distantzia luzeko munduko 55 espezialista onenak lehiatzen dira profesional mailan, eta Ugarte –harritzekoa bada ere, oraindik babeslerik ez daukan triatleta oñatiarra– hamahirugarren sartu zen helmugan (08:04:04). Ikaragarria, kontutan hartuta bere aurreneko aldia zela Konako ironman mitikoan. Atzetik aurrerako lasterketa egin zuen oñatiarrak. Uretatik 34. postuan atera zen –50:41ean osatu zituen igeriketako 3,8 kilometroak–. Bizikleta hartu eta aurreneko 70 kilometroetan ere ez omen zuen sentsazio onik izan, baina hortik aurrera erritmoa gogortu eta aurrekoak harrapatzen hasi zen –04:22:31 behar izan zuen 180 km.-ak egiteko–, eta 23. postuan jaitsi zen bizikletatik. Maratoia geratzen zen aurretik, eta Ugartek aurkariak aurreratzen jarraitu zuen, korrika saio oso erregularra eginez –maratoiko Top 10ean sartu zen 2:45:30rekin– 13. postuan helmugaratzeko.

Ziklo kros zirkuitua egokitu du Aloña Mendiko txirrindularitza sailak San Martinen



Zirkuituak 700 metroko luzera du San Martingo kirol kantxaren inguruko zelaietan eta Aldakiño basoko zati batean barrena. Aldapak, bihurgune estuak eta oztopoak ere badaude ibilbidean eta oso aprooposa da ziklo kroseko teknika lantzeko.

Puntura arte San Martingo zuhaiztian egin ohi zituzten entrenamendu saioak Aloña Mendiko txirrindulariek ziklo kros denboraldian, baina bazekiten ez zela tokirik aproposena eta, hala, Udalarekin adostuta, ziklo kros zirkuitua egokitu dute San Martingo kirol kantxaren inguruko zelaietan eta Aldakiño basoko gune batean. Udalak lursailak eta materiala utzi zien eta ibilbidea egokitzeko lanak auzolanean egin zituzten Aloña Mendiko txirrindularitza saileko juntakide, guraso eta neska-mutikoen artean. "Gogotik egin dugu lan, neska-mutikoek eurek ere parte hartu dute, eta oso pozik gaude emaitzarekin", adierazi du Aitor Atorrasagasti saileko presidenteak. "Eskerrak eman nahi dizkiogu Udalari, emandako erraztasun guztiengatik, eta eskerrak lanean aritu diren gurasoei eta neska-mutikoei. Oso aberasgarria izan da denontzat".

HERRITAR GUZTIEI IREKIA

Aloña Mendiko txirrindularitza sailekoek astelehen eta osteguetan (18:30-20:30 eskolarrak) eta asteazkenetan (16:00-18:30 federatuak) erabiliko dute zirkuitua entrenatzeko, baina ordu horietatik kanpora herritar guztientzat irekita egongo da. "Dagoeneko jende dezente ibiltzen dela ikusten ari gara, eta hori oso pozgarria da, gure helburua txirrindularitzarekiko zaletasuna sustatzea baita, edozein delarik modalitatea", adierazi du Atorrasagastik. Federazioarekin batera teknifikazio saioren bat antolatzeko asmoz ere badu Aloña Mendik.▪





UNAI GARAI Ohorezko Erregional Mailako taldeko entrenatzailea

"Egoera honi buelta emateko garaiz gaude oraindik"

Zortzi jardunaldi behar izan ditu Aloña Mendik lehen garaipena lortzeko Ohorezko Erregional Mailako itzuleran

Ohorezko Erregional Mailarako itzulera ez da izaten ari nahi eta espero bezalakoa, ezta gutxiago ere. Zortzi jardunaldi jokatu behar izan dira Aloñak lehenengo garaipena lortzeko, egoera bertsuan zegoen Ordiziari 0-1 irabazita. Horrenbestez, Aloña Mendik aurrea hartu dio Ordiziari sailkapenean, baina egoera zaila da oraindik ere, jokoan izan diren 23 puntuetatik 5 baino ez dituztelako batu gorritxoek. Espero dezagun garaipen honek joera aldatzeko balio izatea. Gogoratu, duela bi aste ere berdinketa lortu zuela Aloñak Beasain indartsuaren aurka, eta, badirudi, poliki-poliki kategoria berriari neurria hartzen ari zaiola.

Egoera zailean dago Aloña, bistan denez, baina Unai Garai taldeko entrenatzaileak ez du itxaropena galdu nahi. "Iazko mailatik aurtengora dagoen alde handia igarri dugu, jokatzeko erritmoan batez ere. Lesioek ere ez digute lagundu orain arte –aldi berean 8-9 baja izan ditugu– eta maldan gora jarri zaigu txapelketa. Dena den, 26 jardunaldi ditugu aurretik, eta badut esperantza dinamika txar hau iraultzeko gai izango garela. Jokalariak eta entrenatzaile taldea bat eginda gaude, eta denok gure onena ematen badugu, poliki-poliki gora egingo dugula uste dut".

ZALETUEN BABESA EZINBESTEKOA

Zaleen babesa ere oso-oso garrantzitsua izango dela dio Garaik. "Kalean jokalariekin elkartzen direnean indarra transmititzea eskatuko nieke, herria taldearekin dagoela erakustea, eta hori Azkoagaineko partiduetan ere islatzea. Horrek baino indar gehiago ez digu beste ezerk emango. Kategoria honetan zaila da etxetik kanpora puntuatzea eta etxean egin behar gara indartsu".



UNAI GARAI
Entrenatzailea

Zaleei indarra transmititzea eskatuko nieke, herria taldearekin dagoela erakustea eta babes hori Azkogainen islatzea. Horrek baino indar gehiago ez digu ezerk emango.



Andoni Ugarteren Sestaok Espanyol kanporatu du Errege Kopan

Andoni Ugarte Mendizabalen (Oñati, 1995) Sestao River taldeak ezusteko galanta eman du lehen mailako Espanyol taldea Errege Kopatik kanporatuta, Las Llanasen jokatutako partida ikusgarrian 4-3 nagusitu ziren bizkaitarrak eta goletako bat, 2-1ekoa, Ugartek berak sartu zuen buruz egindako erremate bikain bati esker. Zentral oñatiarrak bigarren etapa hasi berri du Sestaon, aurreko hiru denboraldietan Logroñesen aritu ostean. Egun 2. Federazio mailan ari da Sestao.

2027ko Aloñako Igoera apirilaren 25ean izango da

Aloñako Igoerako antolatzaileek jakinarazi dute datorren urteko mendi lasterketa, XXII. edizioa, apirilaren 25ean izango dela. Oraindik ez dute iragarri noiz izango dira aurre izen-emate datak. Bestalde, Zegama-Aizkorri maratoia ekainaren 6an izango da.

Herriko txoko guztietara iritsi nahi?
Jarri zure iragarkia aldizkarian
publi@onati.eus

Mekalki S. Coop. mekanizatuak
Mekanizazio zerbitzu integralak
Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

OÑATIKO 48.

Musikegunak

> Azaroko lau igandeetan goi mailako kontzertuez gozatzeko aukera izango dugu Santa Ana aretoan.

> Hilaren 22an Jon Mestre Arzuaga piano-jole gaztea eta Oñati Abesbatza izango dira protagonista.

> Hilaren 29an Jose de Azpiazu zenak gitarrarako konposatutako zenbait obra joko dituzte.

Lau kontzertuetarako bonoa eskura daiteke 25 eurotan.



www.oñati.eus atarian eta ***Txokolateixan*** eskura daitezke sarrerak arruntak (**8€**) eta lau emanaldietarako bonoak (**25€**)

> AZAROAK 9, SANTA ANA ANTZOKIA, 19:00

CASTA DIVA

Pianoa eta sopranoa

Casta Diva ikuskizunak opera ezagunetako aria eta duetoak uztartzen ditu, musika melodiko garaikideko abesti ospetsuekin uztartuz. ***Maria Callas***, ***Montserrat Caballe*** eta ***Anna Netrebko*** bezalako abeslariekin lotutako errepertorio lirikoa, ***Celine Dion***, ***Mariah Carey*** eta ***Whitney Houston***en abestiekin gurutzatzen da.



> AZAROAK 15, SANTA ANA ANTZOKIA, 19:00

'URAN-ZU' IKUSKIZUNA

Akordeoia eta dantza

Iñaki Alberdi soinujoleak eta ***Haatik*** dantza konpainiak 'Uran-Zu' ikuskizuna eskainiko dute. Euskal musikari begirada poliedrikoa egiten dion ikuskizuna da, akordeoiaren doinu tradizionalak eta berriak dantzarekin uztartzen dituena. Izan ere, ***Haatik*** taldeko ***Leire Romero*** eta ***Aiert Beobide*** dantzariak izango ditu lagun Alberdik, eta baita ***Manu Gaigne***ren perkusioa ere.



> AZAROAK 22, SANTA ANA, 19:00

JON MESTRE ETA OÑATI ABESBATZA

Jon Mestre Arzuaga piano-jole gazteak ***Bach***, ***Chopin***, ***Schumann***, ***Lizst*** eta ***Manuel de Falla***ren obrak interpretatuko ditu lehen zatian. Bigarrenean, bere aitona ***Jose Mari Arzuaga***k konposatutako zenbait kanta joko ditu **Oñati Abesbatza**rekin batera.



> AZAROAK 29, SANTA ANA, 19:00

GARAIRIK GABEKO GITARRA

Musbika Ensemble taldeak gitarra emanaldia eskainiko du. Ohikoa ez den kamera formatu baten barruan ariko da gitarra bakarlaria eta ***Jose de Azpiazu*** oñatiar kitarra-joleak idatzitako zenbait obra, eta ***Luigi Boccherini*** zein ***Antonio Vivaldi***ren obra bana joko dute.





JON MESTRE ARZUAGA

"Kontzertu oso berezia izango da gure familiarentzat"

> Madrilen bizi den paino-jole gazteak bere aitona **Jose Mari Arzuaga** zenak konposatutako hainbat abesti joko ditu **Oñati Abesbatza**rekin batera

> **Azaroaren 22an** izango da kontzertua Santa Ana aretoan (19:00)

'MUSIKEGUNAK' jardunaldien baitan lau kontzertu ederrez gozatzeko aukera izango dugu azaroko igandeetan. Baina horietako bat, hilaren 22koa, berezia izango da; berezia, batez ere, Arzuaga familiarentzat, Jose Mari Arzuaga zenak idatzitako hainbat abesti entzun ahal izango direlako, haren biloba Jon Mestre piano-joleak lagunduta; eta berezia, baita, Oñati Abesbatzarentzat ere, bere 60. urteurrenari ginga jartzeko aukera izango baitu. Emanaldiaren lehen zatian, J. S. ***Bach***, F. ***Chopin***, R. ***Schumann***, F. ***Liszt*** eta ***Manuel de Falla***ren obarak interpretatuko ditu Mestrek.

Azken lau urteetan Madrilen bizi den Jon Mestre Arzuaga (Madril, 2007) piano-jole gazte bezain bikaina izango da kontzertuko protagonista nagusia. Emanaldiaren lehen zatian, garai eta estilo ezberdinetako (barrokoa, erromantikoa, folklorea...) hainbat obra interpretatuko ditu.

Emanaldia hasteko, Johann Sebastian Bach-en bi *Preludio* eta *Fuga* joko ditu musikari oñatiarrak. "Pittin bat 'zerutiarra' da Bach-en musika, ez da zaila entzuteko, eta egokia izaten da era honetako errezital bat hasteko", azaldu digu Mestrek. "Ondoren, Frédéric Chopinen *Nokturno* bat joko dut. Izaera intimoa eta malenkoniatsua duten piezak dira Nokturnoak, musika erromantikoaren esentzia irudikatzen dutenak".

Jarraian Manuel de Fallaren bi pieza interpretatuko ditu: *Suaren dantza errituala* (Danza ritual del fuego), konpositore andaluziarraren musika-lanik ezagunenetako bat, eta *Fantasia Baetikoa* (Fantasía Bética), non melodia eta erritmo flamenkoak nabarmentzen diren.

Ondoren, Erromantizismo garaiko Franz Liszt musikagile eta piano-jotzailearen *Hungarian Rapsody nº 10* joko du. "Musika herrikoia dela esan genezake, kalean entzuten zituen melodietan inspiratutako obra bat delako, oso birtuosoa, teknikoki bere

zailtasuna daukana". Eta lehen zatiari amaiera borobila emateko, Robert Schumann-en *Vienako Inauteria* obra ezaguneko bost mugimenduak interpretatuko ditu.

AITONAREN MUSIKA

Kontzertuaren bigarren zatia herrikoiagoa eta, batez ere, sentikorragoa izango da, Jose Mari Arzuaga (1932-1967) zenak idatzitako zenbait doinu interpretatuko baitu haren biloba gazteak, Oñati Abesbatzaren laguntzarekin. "Bigarren zati hau oso berezia izango da", aitortu digu Mestrek, "ez bakarrik niretzat, Arzuaga familia osoarentzat baizik. Nire *opa* –aitona alemanieraz– ez ezik, gure birraitona izan zen Senén Arzuaga ere izango dugu gogoan, hura ere musikazale amorratua izan zelako (pianoa, armonioa, klarinetea eta txistua jotzen zituen, besteak beste, eta hari esker jaso genuen ondorengook musikarekiko zaletasuna eta maitasuna. Beraz, kontzertu oso berezia izango da, noski, gure familia osoarentzat. Gure aitona, Jose Mari, oso gazterik hil zen, baina, hala ere, lan asko egin zuen herrian musikazaletasuna bultzatzen –Oñati Koralaren sorrerea, Irrintzi Otxotea...–, eta niretako oso berezia izango da haren lana eta ibilibidea gogoratu eta ospatzea, nolabait".

Zehazki Jose Mari Arzuaga zenak idatzitako lau abesti entzun ahal izango ditugu azaroaren 22ko kontzertuaren bigarren zatian: *Gaur bijilian*, *Agur Euskalerri!*, *Agur amatxo* eta *Bihotz baten ordean*. Lehenengo hirurak pianoa eta mezzosopranoarentzat sortu zituen Arzuagak, eta orain moldatu egin ditu Jon Mestrek koruak abesteko hiru-lau ahotsetara.

Laugarren kanta –*Bihotz baten ordean*– Jose Marik konponsatutako abestirik ezagunenetakoa da, Loli eta Juan Migel Ordoki anai-arrebek maisuki abestu ohi zutena. Abesti hau korurako idatzi zuen Arzuagak, eta oraingo honetan Jon Mestrek pianoz lagunduta abestuko du Oñati Abesbatzak, Mirengu Plazaolaren zuzendaritzapean.



Jose Mari Arzuagak idatzitako 'Gau bijilian', 'Agur Euskalerri!', 'Agur, amatxo' eta 'Bihotz baten ordean' abestuko ditu Oñati Abesbatzak, pianoz lagunduta

Jon Mestrek moldatu ditu korurako, bere aitonak pianoa eta ahots bakarrarentzat idatzitako piezak

◄ *Bihotz bat*, Jose Mari Arzuagak konposatu zuen abesti ezagunenetako baten partitura

ETORKIZUNEKO PROIEKTUAK

Hiru urte besterik ez zituela hasi zen Jon Mestre pianoa ikasten. Gerora, Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioan aritu zen eta 2023az geroztik Madrilgo Arturo Soria Kontserbatorioan dihardu, pianoko 6. eta azken kurtsoa egiten. Hurrengo ikasturtera begira, Goi Mailako Musika Ikasketak egiten hasiko da, –ez daki oraindik non–, baina buruan darabilen ametsetako bat Sergei Babayan armeniar piano-jotzaile ospetsuarekin ikastea da, Ëstatu Batuetan. Bien bitartean, ikasteaz gain tarteka kontzertuak ematen ditu –urriaren 27an Erroman izan da, Espainiako enbaxadak Manuel de Fallaren omenez antolatutako kontzertu batean, eta Madrilgo Auditorio Nazionalean ere jo du, kontserbatorioan irabazitako lehiaketa bati esker–. Europako beste herrialde batzuk –Amsterdam, Berlin...– ezagutzea gustatuko litzaioke, eta Estatu Batuetako jazz giroan murgiltzea ere bai, musika-kontzeptua aldatu edo osatu ahal izateko. Hemeretzi urte besterik ez ditu oraindik Jonek, eta etorkizun oparoa aurretik. ▪

JOSE MARI ARZUAGA
zuzendari lanetan nabarmendu zen musikaria



Senen Arzuaga eta Jovita Lasagabasterren semea, 1932ko apirilaren 27an jaio zen Jose Mari. Aita musikazale amorratua izaki, etxean jaso zituen lehen musika eta piano ikasketak. Hamar urterekin Arantzazuko seminarioan sartu zen eta bertan egon zen 21 urte bete arte. Musikako ikasgaian nabarmendu zen; ordu asko eman zituen harmonia ikasten bere kasa, eta horri esker sen berezia garatu zuen. Hantxe hasi zen organoa jotzen, eta 1952an, anaia Javierren ordenazioa zela eta, apaiz-ereserki bat konposatu zuen.

Arantzazutik bueltan, Oñatiko parrokiako koruan sartu zen; aurrena abeslari, eta lasterrera zuzendari. Organoa ere sarri jo izan zuen, Julian Zelaia ordezkatuz. Bere zuzendaritzapean sortu zen Oñati Korala. Torreviejako Habaneren lehiaketan bigarren saria lortu eta disko bat grabatu zuten. Baina osperik handiena Irrintzi Otxotearen eskutik jaso zuen, Gipuzkoako (1962) eta Euskal Herriko (1964 eta 1965) txapelketak irabazi ostean. Hiru disko grabatu zituzten Bartzelonan.

Musikaz gain, herri mailako antzerki talde bat ere zuzendu zuen Arzuagak, eta hainbat obra taularatu zituzten Garoa aretoan, hala nola, Calderón de la Barcaren 'El gran teatro del mundo'. ▪



Aitor Biain, Oñatiko musika bandako zuzendaria, Iñaki Olalde, Kultura zinegotzia, eta Jon Astigarraga, OMBko lehendakaria, kontzertu denboraldia aurkezten

Hemen da Musika Bandaren kontzertu denboraldi berria

> **Azaroaren 15ean** eskainiko du lehen kontzertua, **Oñatz Dantza Taldea** eta **Aita Madina Txistulari Taldearekin** batera.
> Joaquin Lecumberrik konposatu duen **Oñatiko Launakoa** estreinatuko da

Oñatiko Musika Bandak 2026/2027 kontzertu denboraldia aurkeztu du. Ohi bezala, azaroan hasi eta ekaina bitartean kontzertu bana eskainiko du hilero. '**Argiak**' izenburua ipini diote aurtengo emanaldi sortari eta, aurrenekoa, azaroaren 15ean izango da, '**Argiaren erritmoa**' izenburupean.

Musika eta dantza tradizionala uztartuko dituen kontzertu-ikuskizuna izango da, eta musika bandarekin batera Oñatz dantza taldeak eta Aita Madina Txistulari Taldeak parte hartuko dute, Aitor Biain-Bidarteren zuzendaritzapean. "Euskal dantza tradizionalen bidez Euskal Herriko lurralde ezberdinetan bidaiatuko dugu, Oñatiko Korpus dantzak ahaztu barik", azaldu du zuzendariak. Ondoko egitarauan ikus daitekeen moduan, euskal musika eta dantzen errepertorioko hainbat obra eta doinu entzuteko aukera egongo da, hala nola: *Agurra, Jantzan, San Juan zortzikoa, Euskal Dantzak, Txanton Piperri*, edota Jesus Guridiren *Amaya* ezaguna.

'OÑATIKO LAUNAKOA'

Kontzertuko une berezienetako bat Joaquin Lecumberri musikagile nafarrak ekitaldi honetarako espresuki konposatu duen *Oñatiko Launakoa* obraren estreinaldia izango da. "Guretzat oso pozgarria da herriko tradizioekin lotutako obra berri bat estreinatzeko aukera izatea eta Oñatiko musika-ondarea aberasten jarraitzea", azaldu du Biain-Bidartek.



BANDAKO KIDE BERRIAK. Azaroko kontzertuan hiru musikarik egingo dute estreinaldi ofiziala Oñatiko Musika Bandarekin, soinu-aberastasuna indartzen lagunduko duten instrumentuekin gainera: Elena Guridi, oboearekin, Arantzazu Ugarte, fagotarekin, eta Arantzazu Bikuña, fagotarekin.

EGITARAUA

'ARGIAREN ERRITMOA'



AZAROAK 15, IGANDEA
ZUBIKOA PILOTALEKUA
13:00
SARRERAK (DOAN)
TXOKOLATEIXAN

- **Txanton piperri** / *Buenaventura Zapirain (1:30)*
- **Agurra /** *Jose Ramón Vega (2:00)*
- **Biribilketa Santa Cecilia /** *Mold.: A. Labrador (1:00)*
- **Jantzan /** *Aritz Labrador (6:00)*
- **Ikusi mendizaleak /** *Mold.: A. Labrador (1:00)*
- **San Juan zortzikoa /** *Tomas Aragües (3:50)*
- **Erromerian /** *Mold.: A. Labrador (1:00)*
- **Amaya /** *Jesus Guridi (3:40)*
- **Euskal dantzak /** *Mold.: J. Altuna (12:00)*
- **Kaixarranka /** *Mold.: Aritz Labrador (4:30)*
- **Betoño /** *A. Olazaran, Mold.: H. Extremiana (1:00)*
- **Oñatiko Launakoa /** *Joaquin Lekunberri (4:00)*
- **Kokooteraino gaude /** *J. Ansorena (1:00)*
- **Bere aldian (Fandango); Nik ez dakit (Arin-arin) /** *A. Ibarrondo (6:00)*
- **Erromerian (kalejira) /** *Mold.: Aritz Labrador (1:00)*

Kontzertuaren amaieran fandango eta arin-arin doinuek hartuko dute protagonismoa, euskal erromerien giroa gogora ekarriz.

Kontzertua eguerdiko 13:00etan hasiko da, Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan. Sarrerak (doan) Txokolateixan eskura daitezke. Aurretik (11:00) musika bandak kalejira egingo du.

MUSIKA BANDA OSASUNTSU

Iazko denboraldiko kontzertuetan bataz beste 400 lagun batu ziren kiroldegiko harmaileta, –balorazio oso positiboa egin dute bandako ordezkariek–, eta aurten ere animatu egin nahi dituzte herritar guztiak emanaldietara hurbil daitezen. Une honetan 60 bat musikariz osatuta dago banda, gehienak gazteak, baina, hala ere, taldearen etorkizuna bermatzeko lanean jarraitzen dutela azpimarratu zuten bandako kideek, batez ere musika eskolarekiko elkarlanean sakonduz. Ildo horretan, hiru musikari berrik bandarekin estreinaldia egingo dutela azpimarratu zuten. Ildo berean, aurten ere estilo ezberdinetako kontzertuak programatu dituzte, entzule profil ezberdinak, batez ere gazteak, erakartzeko asmoz.

Iñaki Olalde Kultura zinegotziak ere goraipatu egin zuen musika banda egiten ari den lana, urtean zeharreko kontzertuez gain, jaietan eskainitako emanaldi arrakastatsua, musika auzoetara eramateko ahalegina eta, batez ere, herriko beste eragile batzuekiko elkarlanaren aldeko apustua balioan jarriz.

'Sokaz soka'

Hari-instrumentuak jotzen dituzten gazteen lehen topaketa egingo da Oñatin, **azaroaren 7an**

Euskadiko txoko ezberdinetako 50 bat gazte elkartuko dira Oñatin

Ganbara Faktoriaren baitan sortutako Aequus Orkestrak antolatuta, I. ***Sokaz Soka*** Gazteen Topaketa egingo da Oñatin azaroaren 7an. Hari-instrumentuak jotzen dituzten gazteei zuzendutako jardunaldia izango da, eta Euskadiko txoko ezberdinetatik etorritako 50 bat musikarik parte hartuko dute. Helburua da gazteei orkestra batean jotzeko aukera ematea, musikari profesionalekin batera lan eginez eta beste musikari gazte batzuekin esperientziak partekatuz.

ENTSAIOAK ETA ZUZENEKO EMANALDIA

Egun osoko topaketa izango da, Eltzian. Goiz partean ikasleek instrumentuen araberako taldeetan banatuta lan egingo dute Aequus orkestrako irakasle eta musikariekin, eta, ondoren, entsegu bateratuak egingo dituzte Aitor Biain-Bidarteren zuzendaritzapean. Jardunaldia borobiltzeko, kontzertua eskainiko dute Eltziako areto nagusian (19:00). Lehen zatian Aequus Ensemblek joko ditu bere errepertorioko hainbat obra –Bach, Sibelius, film ezberdinetako musika...–, eta bigarren zatian, topaketan parte hartu duten gazteak igoko dira oholtzara, eta elkarrekin joko dituzte *Te Deum*, *Ode to Joy*, *Bella Ciao* eta *Libertango* obrak. Aforoa mugatua izango da eta sarrera gutxi batzuk egongo dira eskuragarri *www.oñati.eus* webgunean.



ETXiAN
Inmobiliaria
Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60
etxian@etxian.net
www.etxian.net

Onarpena eta etsipena gauza bera al dira?

'**Onarpena**' kontzeptuari buruzkoa izango da azaroko **Elkarrizketa Filosofikoak** saioa. Irekia izango da.
Azaroaren 18an, udal liburutegian, 18:00etan

Jakinduria-tradizio askotan funtsezko kontzeptua da '**Onarpena**', errealitatea den bezala sakon aitortzea esan nahi duena. Hala ere, gure bizitzako esperientzian ez da gutxitan gertatzen errealitatea den bezala onartzea kostatzen zaigun egoerekin topo egitea, eta horrek sufrimendu sakona eragin diezaguke. Berdina al da errealitatea den bezala onartzea edota gertatzen denaren aurrean modu pasiboan etsitzea eta erresignatzea? Horren inguruko gogoeta egiteko aukera izango dugu azaroaren 18an udal liburutegian egingo den Elkarrizketa Filosofikoak saioan. Miren Camison filosofoak gidatuko du saioa eta irekia izango da parte hartu nahi duten herritar guztientzat.




Miren Camison filosofoak gidatuko du saioa

The Beatles taldearen *Abbey Road* diskoa aztergai 'El club del LP' saio berrian

Abenduaren 2an, zine aretoan, 18:30etan

Urrian estreinatu zuen, arrakastaz estreinatu ere, **LP Kluba** / **El Club del LP** saioa. Rock eta soul musikaren historian garrantzitsuak izan diren diskoak elkarrekin entzun eta haren historia, testuinguru kulturala, egileak eta eraginen inguruan berba egitea da saio honen helburua, Joserra Rodrigo adituak gidatuta.

Urriko saioa **Bob Dylan**en *Desire* diskoaren ingurukoa izan zen, eta hurrengoan, abenduaren 2an, **The Beatles** taldearen *Abbey Road* album ospetsua izango da entzungai eta aztergai. Liverpooleko taldeak elkarrekin grabatutako azken diskoa da eta musikaren historiako lanik handienetakotzat jotzen da, bere azaleko argazki ikoniko eta guzti. Abenduaren 2an izango da saioa, kultur etxeko zine aretoan (18:30), eta herritar guztiak daude gonbidatuta.



Haurrentzako ipuin kontaketa saioa

Azaroak 6, Haur Liburutegian, 17:30



Lukene Igartua eta Izar Mendiola ama-alabek haurrei zuzendutako ipuin kontaketa saioa eskainiko dute azaroaren 6an, Haur liburutegian, 17:30etan. Argitaratu berri dituzten bi ipuinak kontatuko dituzte: '**Erraldoiena**' eta '**Zapaburuena**'. Lehenengoan Atzeko Kaleko jaietako erraldoiak dira protagonista; bigarrenean, Urbiako zapaburuen arrautzak erreskatatu nahi dituzten bi haur. Saio irekia izango da.

Metereologia eta astronomiari buruzko liburuaren aurkezpena



Oñatiko gida metereologikoa eta astronomikoa izenburua duen liburua aurkeztuko dute azaroaren 27an, kultur etxeko zine aretoan, 19:00etan, Kepa Diéguez eta Roberto Altuna egileak bertan direlarik. Ramón Bustamantek aurkeztuko du saioa eta udaleko kultura zinegotzi Iñaki Olaldek ere parte hartuko du aurkezpenean.





Burrunda Faktoriak urte amaiera arteko egitaraua aurkeztu du

> Bost kontzertu eta hitzaldi-tailer bat programatu ditu, musikagintzaz eta feminismoaz gogoeta egiteko

Burrunda Faktoria kultur elkarteak urte amaiera arte prestatu duen egitaraua plazaratu du. Ohi bezala, kontzertuak izango dira nagusi, baina, tartean, hitzaldi-tailer interesgarri bat ere antolatu dute musikagintzaz eta feminismoaz hausnarketa egiteko asmoz. Azaroaren 10ean izango da (Antixena gaztetxean, 19:00etan) eta bereziki auzo-jaietako batzordeetako jendea eta herriko programatzaileak gonbidatu nahi dituzte hitzaldi-tailerrean parte hartzera. Dena den, herritar guztiei irekia egongo da. Jone Exposito Alberdi soziologoak gidatuko du saioa. Genero eta berdintasun aholkularia izateaz gain, euskal kultura eta, bereziki, musikagintzaren inguruko hainbat proiektutan murgilduta dabil.

BOST KONTZERTU

Urriaren 24an izan zen Burrundak denboraldi honetarako antolatu duen lehen kontzertua (***On*** + ***Mark Duti***), eta azaroan beste bi emanaldi egongo dira: ***Joseba B. Lenoir Gang*** + ***Physis Versus Nomos*** (azaroaren 8an, Antixena gaztetxean, 18:00etan), eta ***Meison*** + ***S.A.D.*** (azaroaren 28an, Gaztetxean, 19:00etan). Abendurako beste bi kontzertu iragarri dituzte: ***Ospel*** + ***Daño Dolor*** (abenduak 11) eta ***Zetkin*** + ***Noiz*** (abenduak 18). Ohi bezala, musika estilo ezberdinak entzuteko aukera izango dugu Burrunda Faktoriaren eskutik.



Joseba B. Lenoir Gang taldea igoko da Gaztetxeko oholtzara azaroaren 8an



Ganbara Abesbatzak Burgosko Antonio José lehiaketa irabazi du



Martxoan Granadan ospatuko den Espainiako Sari Nagusirako txartela eskuratu du

Urriaren 24an Burgosen ospatu zen XXIII. Antonio José abesbatzen lehiaketa nazionala irabazi zuen Aitor Biain-Bidartek zuzentzen duen Ganbara Abesbatzak. Lan bikaina egin zuten oñatiarrek, bai afinazio aldetik eta baita sonoritate aldetik ere. Beren maila eta gaitasuna erakusteko moduko aktuazioa egin zuten Ganbarakoek, eta horren lekuko epaimahaiak oñatiarrei emandako puntuazio altua (88,43 puntu).

Garaikurra, diploma eta sari ekonomikoaz gain (3.000 E) martxoan Granadan ospatuko den estatu mailako Sari Nagusian parte hartzeko txartela lortu du Ganbarak. Horrek aldaketa batzuk eginarazi ziko dio hurrengo urterako aurreikusita zituen proiektu eta egitasmoetan, baina, hala ere, martxoko hitzordua mimoz eta gogotsu prestatuko dutela aitortu digute.

Zabalik dago 'Geuretik Sortuak' sorkuntza bekak eskatzeko epea

Abian da Udalbiltzak sustatutako 'Geuretik Sortuak' sortzaileentzako laugarren beka deialdia. Lau sorkuntza alor bereizi dira: ipuinak, komikiak, antzezlanak eta arte eszenikoak (dantza, poesia, bakarrizketa, musika... edo haien arteko hibridazio oro).Hautatutako sortzaileek hainbat astetako egonaldia egin beharko dute egokituko zaien herrian, eta lanak amaitutakoan, Euskal Herri osoan barrena antolatuko den aurkezpen zirkuituan erakutsi ahal izango dituzte 2028an. Iazko ekitaldian 30 proiektuk jaso zuten beka bana. Azaroaren 14an amaituko da izena emateko epea. Argibide gehiago ***www.udalbiltza.eus*** atarian.

Finalerdietatik puntu bakarrera geratu da Maider Arregi

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalerdietara sailkatzetik puntu bakarrera geratu da Maider Arregi Markuleta. Final laurdenetako zazpi saioetako irabazleentzat eta puntu gehien lortzen zituzten 17 bertsolarientzako tokia zegoen finalaurrekoetan, eta Maider 19.a izan da. Oñatiarra hirugarren sailkatu zen Donapaleuko saioan, 659 punturekin, eta Andoni Rekondok izan da sailkatu den 17. bertsolaria 660 punturekin.Tartean Eneko Araiztegi (659,5) geratu da.

Leire Derteanok irabazi du Euskal Antzerki Topaketako kartel lehiaketa



Azpeitiko 44. Euskal Antzerki Topaketak iragartzeko kartel lehiaketa irabazi du Leire Derteanok. Azpeitiko ikurretako bat den kioskoa eta antzerkigintzako hainbat sinbolo uztartu ditu diseinatzaile oñatiarrak. Lehiaketa hau irabazten duen hirugarren aldia da eta 900 euroko saria bereganatu du.

(*) Itten, -a: arrastua, pistia

>> **LITERATURA TXATALAK (XVIII)**

Aitta Kandido Izagirre Salaberria (1913-1967) Bizitza eta obria (II)

Testua: Roberto Altuna

Hiztegixa zela egin eben

El Vocabulario Vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes izan zan, duda barik, aitta Kandidoren lanik inportantiena. Aitta Villasantek lan mardul honen atarikuan dixuenez, 1952xan ekin otsan lan hau egittiari Bizkaiko Foruko komentuan hiru urte egin ondoren Arantzazura etorri zanian, hain zuzen be. Horretarako, egilliak hamabost urtian zihar Arantzazu inguruetan soseguz eta tajuz eginddako konsulta eta enkuestetan jasotako informaziño dana fitxetara pasau eben xehetasun haundiz.

Orain hurrengo alian esan geben moduan, informaziñua batzeko domeka arratsaldiak aprobetxaitten zittuen baserri-etxietara bixittak egitteko, baiña ez edozein baserrittara, berak testigu baliotsu moduan hartzen zittuen lagunen etxietara baiño, hau da, persona nagusixak, bertako euskeria ondo egitten euenak eta kanpoko eragin gutxi jasotakuak ziranak bixittaitten zittuen euren baserrittan. Abade-eginkizunakin kunplitteko egitten zittuen urteerak be balixaitten zittuen hango datuak jasoteko. Urteera horreik, normalian, Oñati inguruetako herrittara izaten ziran, gehixenetan Leintz baillarakuetara.



Berak izandako lekuko edo berriemaille nagusixenak Arantzazu auzoko edadeko gizon-emakumiak dira eta horrein artian aittatuenak honeitxek: **Soroandietako Pedro Urzelai**, bertako euskeria ezin hobeto egin eta kontu asko ekixelako izan zan aitta Kandidoren lehen maillako lekukua. **Haren alarguna Apolonia Biain** be askotan aittaketan dau, Brinkolan jaixua izan arren, bizi guztia Oñati aldian igaro ebena. Eta **harein semia Juane Urzelai** be ageri da laguntzaille moduan. **Beillotzaako Klaudio Zurutuza** be oso askotan aittaketan da, eta **haren alabia Juana Zurutuza** bertara ezkondua be bai. Horreik baiño gutxixagotan ageri dira **Felix Ugarte Beitia Arantzazuko errotako** lehenagoko errotarixa **eta bere semia Klaudio Ugarte Arregi**.

Gesaltzako Graziano Anduaga be sarri askotan agerketan da, nahiz eta ez izan aitta Kandidoren hain gustokua; izan be, haren jenixo errebelde eta independientia ez zan samur makurketan derrigorrez egin biharreko enkuestai, eta, gaiñera, egilliak errezelo txarra hartzen otsan haren akaberabariko etorrerari.

Horreittatik aparte, noizian behin agerketan dira Azpilleta Goiko Rosa Igartua, Aizkirriko Ladislao Odriozola, Zapiarbeko Bentura Albizu, Albitxurizabaleko Domingo Arregi, Arenduiko Brigida Villar, Arrikurtz bateko Maria Ugarte Anduaga eta besteko Ageda Maiztegi, eta Azpilleta Beheko Fakunda Arregi.

Madurara jaitsitta, beste lagun honein izenak be ageri dira: Torreauzoko Azpikua baserriko frai Bixente Astaburuaga; Garagaltzako Okomardingo Santiago Idigoras, eta Atzeko kale goixeneko Frantzisko Txintxurreta, hantxe eskopeta-dendia eukana eta hegaztixen gaiñeko informaziño aparta emun otsana. Urrusulan, Osiñagako Bixente Unzurrunzaga Lizarralde eta Araotzen, Madiña Garaiko Txikiñeko Bernabe Igartua eta Madiña Azkoittien Haundiko Jose Joakin Zumalde, elizako sankristau zaharra Jose Agirre, Leona Ugarte Madinagoitia, Borjena, eta Jaturabeko Makiñetxeko Martina Ugarte Anduaga, bestiak beste. Herriko auzuak be aittaketan dau: Olabarrieta, Narria, Goribar, Berezao, Murgixa, Lezesarri, Uribarri, Erguiña, xehetasun haundirik emun barik. Eta gure herri inguruetan be ibilli zan, Ugastegi, Kórueta, Arientzaa (Aretxabaletako auzuak), eta Mazmela, Kastañares, Bolibar, Marin... (Eskoriatzako auzuak)

Lekuko batzuen erretratuak:

Arantzazukuak



Pedro Urzelai
Soroandietakua



Juane Urzelai
Soroandietakua



Graziano Anduaga
Gesaltzakua



Klaudio Ugarte Arregi
Errotakua

Araozkuak



Jose Joakin Zumalde
Madiña Azkoittien Haundikua



Leona Ugarte Madinagoitia
Borjena



Martina Ugarte Anduaga
Arrikurzkua, Jaturabeko
Makiñetxera ezkondua

Egilliaren zorroztasuna

Aittatutako datu horreikin guztiakin garbi ikusten da zenbat testigantza jaso eta zelako zihaztasunez egiña dan hiztegi hau. Holako lanetan dabiltzein adittuak ondo baiño hobeto dakixen moduan, ezta bape samurra datu seguruak eta zihatzak batzeia. Hori jakindda, aitta Kandidok lanian serixo eta zorrotz jardun eben eta burutu gura eben hiztegixa ahalik eta balixogarrixena eta zientifikuena izan zedin aholkulari lanetarako Koldo Mitxelena euskaltzaiña izan eben lagun.

Ez zan behin bakarrik arin antzian entzundako erreferentzia batekin gustura geraketan zan horreittakua, behin eta berriz preguntauko eben, modu batian eta bestian, harik eta datuaren zihaztasuna eta segurantzia erabat konprobau arte. Eta datu batekin guztiz seguru ezpadago, azalpenaren edo itzulpenaren onduan galdera ikurra jarriko dau dudia markaitteko.

AGENDA

EKITALDI BEREZIAK

AZAROAK 7 / 12:00-14:00 eta 19:00-21:00
OLAGARRO EGUNA (Pulpeiro)
Errazioa, 15€. Pake Lekun.

AZAROAK 14 / 19:00-21:00
ARANTZAZUKO XIII. MIKOPOTEOA
Arantzazuko ostatuetan.

AZAROAK 25 / 18:30
GAZTAINA JANA Pake Lekun.

ERAKUSKETAK

AZAROAK 3 - 20
'MIN(BIZI)'
Izan Inurri-ren eskutik Emakumion Etxian.

AZAROAK 3 - 22
1974KO TXIMIST ESPEDIZIOA EVERESTERA
Mendi Astea Kultur etxean

HITZALDI-SOLASALDIAK

AZAROAK 10 / 19:00
'Elkarri begira ikusten gara: Ertzetatik euskal musikagintzaren hausnarketa feminista bat'
Jone Expositok gidatua. Gaztetxean.

AZAROAK 14 / 17:30-18:45
'Perretxikoak eta onddoak: udazkeneko altxorrak, basoko zaporeak'
Amaia Diaz de Monasteriogurenen eskutik. Gandiaga topagunean.

AZAROAK 18 / 18:00
ELKARRIZKETA FILOSOFIKOAK:
'Onarpena kontzeptuaren inguruan
Udal liburutegian.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

AZAROAK 10 / 19:00
'MEKONG IBAIAN ZEHAR'
Mendi Astea. Kultur etxean.


AZAROAK 11 / 19:00
'TXIMIST ESPEDIZIOA EVERESTERA'
Mendi Astea. Kultur etxean.

LIBURU AURKEZPENA

AZAROAK 27 / 19:00
'OÑATIKO GIDA METEREOLOGIKOA ETA ASTRONOMIKOA'
Kepa Diéguez eta Roberto Altuna egileen eskutik. Kultur etxean.

DOKUMENTALA / AZAROAK 19 ETA 20, ZINE ARETOAN, 19:30

'NAZA'



Oñati Palestinarekin herri ekimenak Zine Klubarekin batera NAZA dokumentala dakar Oñatiko zinemara, Palestinaren aldeko kontzientziak pizten jarraitzeko eta Israeli aurre nola egin, modu pertsonalean nahiz kolektiboan, arduratu behar gaituelako.
Israelgo tropek zibil palestinarren kontra nahita eta masan eragindako hilketen atzeko mekanismoak azaltzen ditu Naza dokumentalak. Yuval Abraham eta Rachel Szor zinegileek Israelgo armadako 24 soldaduren testigantza klandestinoak bildu dituzte. Tel Aviveko teilatuetan gauez filmatutako dokumentalean xehetasun osoz erakusten da nola antolatu eta parte hartu duten sarraskietan, helburuak hautatzeko erabilitako metodoak...

ANTZERKIA / AZAROAK 28, SANTA ANA ANTZOKIAN (19:00)





'OSPITALEKO GORABEHERAK!'

Pake Lekuko IKUSI MAKUSI taldearen eskutik

Pake Lekuko Ikusi Makusi taldeak antzezlan berria taularatuko du azaroaren 28an , Santa Ana antzokian (19:00) herritar guztiei irekia. '**Ospitaleko gorabeherak!**' (**¡Incidencias en el hospital!**) da antzezlanaren izenburua. Justo ospitalean ingresatuta dago, apendizitiseko ebakuntza egin behar diote, baina akats baten ondorioz beste ebakuntza mota bat egiten diote. Deskuido mediko horrek egoera xelebrea sortkuo du eta pertsonaiak irtenbide bat bilatzen saiatuko dira. Axun Arzuagak idatzitako testua da, Arantxa Bengoak moldatua.

MUSIKA

AZAROAK 8, 15, 22 eta 29 / 19:00
OÑATIKO MUSIKEGUNAK
Santa Ana antzokian.

AZAROAK 8 / 18:00
JOSEBA B. LENOIR GANG + PHYSIS VERSUS NOMOS Gaztetxean.

AZAROAK 15 / 13:00
OÑATIKO MUSIKA BANDA Zubikoan

AZAROAK 28 / 19:00
MEISON + S.A.D. Gaztetxean.

ABENDUAK 2 / 18:30
'EL CLUB DEL LP'.
Abbey Road (The Beatles). Zine aretoan.

TAILERRAK

HAZKUNTZA PERTSONALA ETA ENEAGRAMA TAILERRA
Lourdes Lopezek eta Maite Anduagak gidatua. Hilean zapatu bat (9:00-13:00), Informazioa eta izen-ematea: 658 719 086 / lurdescid1@hotmail.com. Eltzian.

AZAROAK 12 / 18:30
MARRAZKETA TAILERRA
Pernan Goñiren eskutik. Pake Lekun.

AZAROAK 28 / 10:00-13:00
ARGAZKILARITZA TAILERRA
Itziar Bastarrikaren eskutik. Natur Eskolan.

TXAPELKETAK

IPUIN KONTAKETA

'KAMALEOIAREN AZALA'

AZAROAK 26, OSTEGUNA
HAUR LIBURUTEGIAN (18:00)



Inoiz amestu al duzu kamaleoiak bezala azalaren kolorea aldatzearekin? Inoiz desiratu al duzu beste norbait izatea, momentutxo batean bada ere? Ba ez zara bakarra. 4-5 urteko (HH4-HH5) haurrentzako, Odei Arregiren eskutik. Gonbidapenak, azaroaren 16tik aurrera.

17. LABURMETRAI RALLYA

AZAROAK 7, LARUNBATA

Zinea eta euskara uztartzen dituen Oñatiko Laburmetrai Rallyaren 17. edizioa ospatuko da azaroaren 7an. Azaroaren 6a da izena emateko azken eguna (***olr.antolakuntza@gmail.com***). Gaueko 22:00etan Santa Ana antzokian ikusi ahal izango dira lan guztiak.

URRIAK 15 / 15:30
MUS TXAPELKETA
Olakua tabernako I. Mus Txapelketa. 30€ bikoteko. Olakua tabernan.

ZINEA

AZAROAK 9 / 17:30
'ARO BERRIA'
Film emanaldia eta solasaldia aktoreekin. Emakumion Etxian.

AZAROAK 12 / 19:30
'MENDI FILM FESTIVAL'
Mendi Astea. Kultur etxean.

AZAROAK 17 / 17:30
'1724 NOCHES'
Dolumental emanaldia eta solasaldia zuzendariarekin. Emakumion Etxian.

ZINEA

Zine-kluba: Osteguna (19:30)
Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)
Gaztetxoak: Larunbata eta Igandea (17:00)
Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

AZAROAK 5 - 9

ZINE KLUBA:
REBUILDING
NAGUSIAK:
RUEGA POR NOSOTRAS
(*) Estreinaldia
GAZTETXOAK:
LA ISLA OLVIDADA



AZAROAK 12 - 16

ZINE KLUBA:
MENDI TOUR FILM FESTIVAL
NAGUSIAK:
SACAMANTECAS
(*) Euskaraz, gaztelerazko azpitituluekin
GAZTETXOAK:
SUPERTHINGS
(*) Euskaraz,



AZAROAK 19 - 23

ZINE KLUBA:
NAZA
NAGUSIAK:
TIEMPOS DE ILUSION
GAZTETXOAK:
OVEJA SHAUN: MISION CALABAZA



AZAROAK 26 - 30

ZINE KLUBA:
LA BUENA HIJA
NAGUSIAK:
WILD HORSE NINE
GAZTETXOAK:
KATU KAPELADUNA



FARMAZIA

ANDUAGA
San Lorentzo 3 /☎ 943 78 21 16
Azaroak 9, 10, 18, 19, 27, 28 eta 29. Abenduak 7.

IGARTUA
Kale Zaharra 1/ ☎ 943 78 01 22
Azaroak 2, 3, 11, 12, 20, 21, 22 eta 30. Abenduak 1.

GARATE
Kale Barria 42/☎ 943 78 05 58
Azaroak 4, 5, 13, 14, 15, 23 eta 24. Abenduak 2 eta 3.

ULDAIN
Kale Barria 6 /☎ 943 78 11 28
Azaroak 6, 7, 8, 16, 17, 25 eta 26. Abenduak 4, 5 eta 6.

ODOL ATERALDIA

AZAROAK 20 / 16:30-20:30
MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, **https://gotatanta.eus** atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

MERKATU TXIKIA

GARAJE BILA Erosteko edo alokatzeko garaje bila gabiltza (Zubibarri kalea, Ramon Irizar, Portu, Santa Marina bueltan) Harremanetarako: 616 866 829 / 655 826 931..

ONNATIKO NESKA arduratsua eta atsegina, hemengoa, haurrak zaintzeko eta eskolara eramateko, edo adineko pertsonak paseatzera atera edo konpañia egiteko pret. Deitu: 695 738 795.

SU-EGURRA sikua, sekaderokua salgai. Haritza, pagoa, akazia neurri diferenteetan (25, 30, 40 zm.-totan). Paletetan enbalatuta, behebarrura zuzenean transpaletakin. Deitu lasai: 690 945 232.

FAMILIA etxebizitza bila Oñatin, alokatzeko. Deitu: 663 558 452.

MERKATU TXIKIA
kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72

Coinbroker

EUSKADI

Osasun aseguru on baten bila zabiltza?

MAPFRE

DKV

Sanitas

IMQ



Zure beharretara egokitzen den asegurua aukeratzen lagunduko dizugu!

Coinbroker EUSKADI

C/ Arantzazuko Ama, 9
20560 Oñati-Gipuzkoa

943 089006
coinbroker.eus
oinati@coinbroker.eus